




## **Koko eskian basaririk basari**

**EUKi**

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea  
943 20 42 99

**AUTOAREN ASEGURUA**  
*preziorik onenean*



# ZEZEN BIDE AUTO ESKOLA



**Auto, autobus, kamioi eta motorrentzako gida-baimenak  
Teorikako irakaslea egun osoan**



## GIDA-BAIMENAK

**Ego Gain, 4 - behea**

(San Andres pasealekutik)

**Tel. 943 20 34 45**

**EIBAR**

## ZEZEN BIDE



## AUTO ESKOLA

**Dagoeneko  
65.000 bisita  
baino gehiago  
izan ditugu!**

...horietako  
bat izan zara?

...azken orduko berriak...

...elkartea atalka...

...asteko alea...

...agenda...

**...eta orain  
buletin zerbitzua!!!**

**[www.etakitto.com](http://www.etakitto.com)**



Euskara Elkarteak

**ARGITARRATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkarteak

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11 - solairuartera  
20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Leire Iturbe, Silbia Hernandez

eta Ekhi Belar.

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Kezka Dantza Taldea

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ihintza Fernandez

**TIRADA:**

7.950 ale

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN:

1132 - 1679

(“...eta kitto!”k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Sail honen helburua ez da euskera irakastea, ezta hiztegi bat egitea ere. Gure gurasoek eta haien gurasoek erabiltzen zuten euskera gogora ekartzea eta berreskuratzea da asmoa. Gaur egunean euskerak esparru guztiak hartu ditu eta gaur egun baino euskaldun gehiago ez da inoiz egon; baina, hala ere, oraindik euskera ez da erabateko komunikazio-tresna: hainbat gauza esatea kosta egiten zaigu, ez dugu gazteleran bezalako erraztasunik eta trebetasunik. Sail honetan euskeraren alde adierazkorra landu nahi dugu, euskerak berez daukan gatzia eta berakatzu berreskuratu. Horretarako aurreko belaunaldietara jo dugu, gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera jatorraren berri jasotzeko.

**DI-DA.-** Jotzearen onomatopeia. “Di-da burutik behera eta lurrera konort barik”.

**DIA-KANPO.-** Eztei-bidaia. “Lehenago, baje-nobiosari dia-kanpua esaten jakon”.

**DIABRU.-** Bihurria, okerra. “Infarnuko txikixa esaten gentsan eskolako bati, oso diabrua zalako”.

**DILIN DALAN.-** Kanpai hotsaren onomatopeia. “Dilin-dalan, kanpaien hotsa bazoian zeruan zihar”.

**DINBI-DANBA.-** Mailu hotsaren onomatopeia. “Dinbi-danba suteixan, gorritutako burdiñia tiratu gurarik”.

## IRAKURLEA PROTAGONISTA eskutitzak

### IDOIA ASTIZ JOAN ZAIGU

Bederatzi urterekin txistua jotzen hasi nintzenen, nork esango zidan zein lotura estua izango nuen Idoiarekin. Lehenengo andereño bezala, Udal Txistulari Bandako taldekide moduan gero, eta baita lagun moduan ere, Laredon pasatzen genituen udako oporretan.

Hain gertu egon ginen, txistua jotzen ikasteaz gainera igeri egiten ere berarekin ikasi nuela, eta zergatik ez esan, baita bizitza honetan mugitzen ere. Gauzak esateko zuen moduak, ilerik ez zuen ahoan eta oso zuzena zen, haserretu egiten zuen bat baino gehiago, baina egiak besterik ez zituen esaten.

Bi urtetan belaunean jasandako operazioek morala minduta utzi zioten, baina gaixotasun larri batek eramane du azkenean Idoia.

Hezigaitza, keinu zakarrekoa baina bihotz oneko andereñoa izango zara beti guretako. Eskerrik asko Idoia eta badakizu zure lekua gure artean duzula Txistulari Bandan.

Jose Miguel Laskurain


## asteko esaldiak HEMEROTEKA

“Neuri batzuk hartuta, hasiera baten manipulazio genetikoaren onargarria da, egin behar da, muga batzuk errespetatu, noski.. Badira gaixotasun gutxi batzuk gene bakar batek ekoizten dituen; gene hori aldatu behar dela uste dut”

(Koldo Martinez, medikua eta biotikoa)

“Italiatik kanpo bicaliak, erumaniar asko estatu espainiarera iritsi dira erbestean bezala. Prentsa eskuindarrek inbasioa salatzen du. Alpujara eskualdean olibondoetan diharlute lanean, 20 euroren truke. Azken hau zeinek salatzen du?”


(Joanes Etxebarria, zutabegilea)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

kutxa

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euzko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria



### Semaforoa

**G**ogoratzen duzue telesaio hau? Ordurarte ikusitako friki handienak agertzen ziren kantari edo dantzatzen eta ondo egiten bazuten argi berdea pizten zieten, eta bestela (gehienetan) gorria. Immigrazio kontuetan telebis-tak erakusten diguna ere, 10etik bederatzitan, argi gorria pizteko modukoa da, baina bada noizean behin argi berdea merezi duen ekintzarik. Azkena Donostiako haur danborradan ikusi ahal izan dut, aurten Liman jaiotako 10 urteko neskatxa beltzaran bati egokitu baitzio Easo Ederra izatea, semaforo berdea beraz aurtengo danborradaren erreginarentzat. Baina neskatxa hori ez da euskaraz hitz erdi bat ere esateko gauza izan, semaforo gorria beraz ume etorkinak Gipuzkoan guztiz marginala den "A" eredua duten ikastetxe gutxi batzuetan pilotzea ahalbidetzen duen politikari.

Honenbestez argi naranja emango diogu aurtego haur danborradari, eta ni ere argi naranjarekin banoa Eibartik, gauza batzuetan asmatu dugula baina beste askotan hobeto egin daitezkeen sentazioarekin.

Immigrazioak gora egingen jarraituko du eta integrazio eta sensibilizazio beharrak ere bai, beraz zorterik onena hurrengo immigrazio teknikariari eta eskerrik beroenak nere langintzan bidelagun izan zaituztedan guztioi!!

**Julen Aranguren**  
(IMMIGRAZIO TEKNIKARIA)

## Merkataritzari buruzko jardunaldia

**E**ibar Merkataritza Gune Irekiak Barne Merkataritzaren inguruko III. jardunaldia antolatu du. Astelehener goizean izango da topaketa, 09.30etatik aurrera. Edizio honetan merkataritza gune irekien gaia aztertuko dute. Lehenengo hitzaldia Ramiro García Gortik (Ikei enpresako aholkulari seniorrak) emango du 10.00etan, 'La revitalización de los centros urbanos. Plan Especial de Revitalización Comercial de Eibar' izenburuarekin. Aurretik, 09.30etan parte hartzaileei akreditazioak banatuko dizkiete eta ordu laurden geroago inaugurazio ekitaldia hasiko da. Bigarren hitzaldia 11.00etan hasiko da: Tomás Maeztu Mugan-eko gerenteak



**Aurreko edizioan beste herri batzuetako merkataritza esperientziak ezagutzeko aukera izan zuten herriko dendariak.**

'La conversión de los mercados de abastos en centros comerciales urbanos como revitalizadores del centro de la ciudad' izenburupean jardungo du. Berarekin batera Roberto Alonso Mercasa enpresako

merkatu minoristen sailleko buruak jardungo du. Bestek beste Irun inguruan martxan ipini duten Mendibil Merkataritza Parkeak izan duen eragina aztertuko dute. 13.15ak aldera amaituko da jardunaldia.

## Etxebizitza tutelatuak nagusientzat



**P**opulazioa gero eta zaharragoa dela ikusita, Udalak nagusientzat etxebizitza tutelatuak sortzeko proiektu berriak aztertuko dituela aurreratu du. Etxebizitza tutelatuak gaitz edo gaisotasun larririk ez duten eta, beraz, euren kabuz baliatu daitezkeen, baina bestela euren etxean egoteko edo egoitza eta horrelakoetan sartzeko zailtasunak dituzten nagusientzat izango lirateke. Beste udalerrri batzuetako esperientziak ikusita, Eibarko Udalak horrelako etxebizi-

tzen inguruko eskaintza sortzeko aukerak aztertuko ditu. Besteak beste, Ardantzako 3. faseak horretarako bideak zabal ditzazke. Aurreko astean Udal aurrekontua onartzeko plenoan Carmen Larrañaga PP-ko zinegotziak horren inguruko zuzenketa aurkeztu zuen, teleasistentziaren inguruko beste batekin batera, eta han atzera bota bazituzten ere, horren inguruko premiak aztertzeko asmoa azaldu dute Udalean. Oraingoz etxebizitza tutelatu bi dauzka udalak, Ipuruan.

## Lagun Taldearen hotela

**A**urreko asteburuan izandako Arrakasta eta gero, indarberrituta bueltatuko dira Lagun Taldea elkarteko kideak bihar hezkuntza esparrura. Musika eta antzerkia batuta, ikuskizun bikaina eskaini zuten aurreko asteburuan eta bihar arratsaldean, 17.30etatik au-

rrera Hezkuntza Esparruko eszenatokia berri ere goi mailako hotel bihurtuko dute ikuskizunean parte hartzen duten neska-mutilek. Sarrera doan da, baina aldeztu aurretik elkarteko lokalean banatu dituzten gonbidapena aurkeztu behar da sartu ahal izateko.





## autuan

### ETXEBIZITZA TASATUAK

Lopezengua, Arrate-Bide eta Sautsin Udalak zozketatuko dituen etxebizitza tasatuetan interesa duenak otsailaren 7a baino lehen aurkeztu beharko du eskaera, hala behar izanez gero. Izan ere, aukera bi daude zozketan parte hartu ahal izateko: batetik, Etxebiden izena emanda egotea aurtengo urtarrilaren 1a baino lehen; eta, bestela, 2006ko errenta-aitorpenean 9.000 eurotik gorako eta 39.720 eurotik beherako diru-sarrerak izan zirela erakutsi beharko du eskaera egiten duenak. Kasu bietan, Eibarren 5 urtez erroldatuta egon beharko da.

### MUGIKORRAK ETA AUTOA

Astehenean hasi eta datozen egunotan gidatzen den bitartean telefono mugikorra erabiltzen ez dela zaintze-

ko kanpaina berezia ipini dute martxan Ertzaintzak eta Udaltzaingoa. Iaz 3.500 gidariren kontrako salaketak egin zituzten telefonoz berba egiteagatik. Hutsegite larria da eta 200 euroko isuna jaso dezake gidariak eta gida-baimeneko 3 puntu galtzen ditu.

### POSTA BIDEZKO BOZKA

Martxoaren 9an egitekoak diren Espainia maillako hauteskundeetan botoa postaz eman nahi dutenentzat zerbitzu berezia eskaintzen hasi dira PSE-EE alderdikoak 'Casa del Pueblo'-ko bulegoan (Isasi, 2, 2. pisua) astehenetik barixakura, 09.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 19.00etara, tramiteak errazteko asmoarekin. Beste alderdi politikoek ere horrelako zerbitzua eskaini ohi dizkie boto-emaleei.



### Eskubideak, delitu

**E**makumea eta legea be-tearazten duten medikuak begiz jo dituzte azkena, eta haien atzetik ari dira, gaizkile balira legez. Hego Euskal Herrian abortua legezkoa da 1985etik, Felipe Gonzalezen gobernuak Abortuaren Legea onartu zuenetik. Hiru baldintzatan eten daiteke haurdunaldia, beti ere jarritako epeen barruan: bortxaketa kasuetan, fetuak gaitz fisiko edo psikikoren bat gara dezakeenean, eta amaren egoera fisikoa nahiz psikikoa arriskuan dagoenean. Europako ia estatu denetan ez dute araututako epeen barruan abortatzea beste baldintzarik jartzen.

Hala ere, abortuak egiten dituzten hainbat klinika pribatu itxi dituzte, eta abortatzaera joan direnek ere irainak eta mehatxuak jasan dituzte. Madrilen eta Bartzelonan, abortatzeko erabili zituzten mediku txostenen eske joan zaizkie poliziak etxera hainbat emakumeri, iruzurra egin duten edo ez jakiteko. Egoera zail horretan dauden nafarrek, berri, kanpora joan behar dute, legez Nafarroan bertan abortatzeko eskubidea dagokien arren. Lehen estuasun gutxi, eta orain hau. Erabat jarrera hipokrita erakutsi dute politikariek. Kontuan izan behar baita osasun sistema publikoan abortuen %2 egiten dituztela bakarrik, eta klinika pribatuek hartzen dutela legea betearazteko ardura.

Presioari men egin dio berriro ere Zapateroren gobernuak, botoak galtzeko beldurrez, eta Abortuaren Legea berritzeko plana ez duela programan sartuko esan du, duela lau urte emandako hitza janda. Legea egin dutenak legea hausten, eta ez da berria.

**Ainara Argotia**

(KAZETARIA)

## Etxebizitzen birgaitzerako zerbitzua Debegesan

**D**ebegesak eskaintzen duen Eskualdeko Etxebizitzen Birgaitzerako Zerbitzuak 411 kontsulta izan zituen 2007an. Horietatik 165 Eusko Jaurlaritzako etxebizitzen birgaitzerako diru-laguntzen espediente gisa onartu zituzten, 74 komunitate obra eta 91 etxe-barrualde, hain zuzen.

Zifrak zehazte aldera, 752 etxebizitzatan egin dira komunitate obrak, eta 91tan etxe-barrualde-erako birgaitze-lanak. Horiek guztiak birgaitze zerbitzuak lagundu ditu eta guztira, 660.000 euro banatu dira Eusko Jaurlaritzaren laguntzari esker.

Etxebizitzen Birgaitzerako zerbitzuaren bidez, Debegesak etxebizitza pribatu nahiz komunitate-sareei euren etxebizitzen egoera hobetzeko aukera eman nahi die. Horretarako, gaiaren inguruan indarrean dauden diru-laguntzen informazioa osoa eskaintzen dio herritarrari eta, gauzak ondo bidean, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Ordezkaritzaren birgaitze-espedienteak tramitatu egiten dituzte. Interesa dutenek, informazio gehiago eskura dezakete [www.debegesa.com](http://www.debegesa.com) webguneko etxebizitza atalean.



Nahi izanez gero, Debegesan bertan tramitatu daitezke etxeak birgaitzeko dauden laguntzak.

## Automobilak kalean saltzearekin kexu

**E**li Gómez Ezker Batua Berdeak taldeko bozeramaileak alkatetzari eskaera aurkeztu berri dio, "aparkatzeko toki publikoak ibilgailuen zuzene-

ko salmentarako larregi erabiltzearen aurrean" horrekin amaitzeko neurriak har ditzan. Zinegotziak azaldutakoaren arabera, "denda kanpoan etenbariko sal-

menta ematen den heinean, maiatzaren 27ko 7/1994 Euskadiko merkataritza jardueraren inguruko legea hausten da. Arauhaustek 1.500 bat euroko isuna ekar dezake berarekin". Praktika hori kontrolatzeko eta, behar izanez gero, isunarekin zigortzeko eskatu du EB-Berdeak taldeko ordezkariek alkatetzan, herriko hainbat puntutan modu iraunkorrean horrelakoak gertatzen direla ikusita horrekin amaitzeko asmoarekin, "toki horiek eibartarrek edo herrira datozenek modu librean erabiltzeko aukera izan dezaten".



Eli Gómezek neurriak eskatu ditu aparkatzeko toki publikoak ibilgailuen zuzeneko salmentarako erabiltzen direla-eta.

ORAIN DELA

# 10 urte

1998-I-30  
222. ZKIA.



Jose Maria Odriozola Unben izan zan bisitan.



Deporreko Mendi Taldeak Alpeak eta Piriniuak izan zittuan egutegixan.

- Aitor Arakistain aurtenko Arrateko Igoerako irabazleak Paris-Dakar rally ospetsuan hartu zuten parte. Eibartarrak 9. etapam legera bitan izan zuten lasterketia, gasolina barik zeratu zabaldu.
- Eibarko zuzendaria eguneratu eta dibulgatuko urrats garrantzitsuak emon ziran. "Eibarko Aditza" liburua kaleratu zuten eta eibarrera ikasteko ainarriko ikastarua antolatu zuten Euskara sailak.
- Espainiako atletismo federazioaren presidentia Unben izan zuten bisitari hamdik hilla batez batzuetara bertan jokatu zuten Espainiako tripartidaren inguruko informazioa jasotzen.
- Auzorain barrua ipini zuten lanian herriko erdigunian, aurretik marthan zuzaren bestiekim. Bestalde, udalari bitarrak hasi ziran, udaltrainen lokalak Ego-Gainera eraman zituzten.

## Bizitzarako trebetasunen inguruko ikastaroa

**G**izartekintza sailak 'Bizitzarako trebetasunak' izenburuko ikastaroa antolatu du. Ikastaroaren helburua, "adin-txikikoen hezkuntzari begira baliabideak eskaintzea" da eta bigarren hezkuntzan dauden 12 eta 16 urte bitarteko gazteen gurasoentzat edo haien hezkuntza-

ren inguruko ardura dutentzat pentsatuta dago. Ikastaroa doan izango da eta apirilaren 17an eta 24an eta maiatzaren 6an emango du Hilario Garrudo psikologoak, 18.00etatik 20.00etara Portalean. Eibarren erroldatutako Pegoran eman dezakete izena, apirilaren 11ra arte.



## Alkoholikoen familiendako hitzaldia

**A**l-anon alkoholikoen senitartekoen elkarteak 30 urte betetzen ditu eta, Arrate taldeak hitzaldi-informatiboa antolatu du biharko (zapaturoko), 18.00etatik aurrera San Andres elizako lokalatan (anbulategi paretik sartuta). Elkartearen alkoholarekin arazoak dituzten bikotekideak, seme-alabak eta lagunak batzen di-

ra, euren esperientziak elkarrekin konpartitzeko. Elkarteko kideen anonimotasuna errespetatzen da eta ez da kuotarik edo bestelakorik ordaindu behar. Elkartearekin harremanetan ipintzeko 943475403 edo 656738160 telefono zenbakietara deitu daiteke edo elkartearen webgunea bisitatu, [www.al-anonespana.org](http://www.al-anonespana.org) helbidean.



## Astelena danborrez gainezka

**D**omika eguerdian, donostiarrek San Sebastian eguna ospatzen zuten bitartean, eibartar askok danborradarekin primeran pasatzeko aukera ondo aprobetxatu zuten. Urteroko moduan, Usartza Txistulari Bandak danborradaren kontzertua eskaini zuen, Cielito Musika Bandak, metalek eta danborradako



sektio bik lagunduta. Kontzertua Astelena frontoian izan zen eta ume zein nagusiek ondo baino hobeto pasatu zuten kontzertuan, 'Tatiago' eta danborradako beste doinu ezagun batzuen erritmora.

## Torrekua-Otaola bidea zabalduko da

**E**l Corte Ingles merkataritza-zentru berriaren sorrerak sortuko duen trafiko fluxu handia dela eta, Torrekua kalea eta Otaola etorbidea lotzen duen bidearen zabalera handitu egingo da. Izan ere, Legarreko bariantetik edo San Andres etorbidetik datozen auto guztiek Torrekua-Otaola bidea hartu beharko dute El Corte Inglesera joan ahal izateko Otaola bidea jarraituz Barrenenguatik jaisten, eta egoera berri horrek Torrekua eta Kantoi aldean kolapsoak sor ditzake.

Trafikoan sor daitezkeen arazoak sahiesteko ekintza bi egingo dira. Alde batetik, Torrekua-Otaola bidea zabaldu egingo da, zentzu berean bi karriletako bidea eginez, eskuinakoa Otaola edo Santaines

kaleetara joateko eta ezkerrekoa El Corte Ingleseko parkingetara soilik abiatzeko. Eta horretarako, bigarren neurri bat hartzea ezinbestekoa izango da: Otaolako ezkerreko karrila gordetzea merkataritza-zentrua joan ahal izateko.



### Valenciaga bidetik merkataritza-zentrua

Bigarren neurri honekin, Torrekuatik El Corte Inglesera do-



EKH BELAR

azen autoek gordetako-karril bat izango lukete Valenciaga bidetik merkataritza-zentruko parkingera joateko. Beraz, Alfa eta Valenciaga artean dagoen bide hau zabaldu egin behar

ko litzateke. Horretarako, alternatiba bi egongo liriateke: bata, erlaiz baten bidez Mendi-guren fabrikaren inguruan dau-

den aparkalekuak hartzea. Eta bestea, bidearen ondoan, Alfaren eremuan dauden zuhaitzak moztea, bidea zabaltzeko lekua izateko.

Bestalde, Otaola etorbidean Lambretta eta Ertzaintzaren parean dauden aparkalekuak kentzea ere planteatu da, autoei zuzendutako espazioa zabaldu eta Barrenenguara doazen kotxeentzat ezkerreko karrila gordetzeko.



LEIRE ITURBE

## Jendetza handia San Antonetan

Jaiak joan den egunean hasi ziren iluntze aldean meza batekin, eta ondoren, pisikolabisa egon zen. Hurrengo egunean, barriakuan, Untzaga jubilatuen etxeko abesbatzak musika emanaldia eskaini zuen, baina egun nagusiak asteburuan bizi ziren.

Zapatu goizean hainbat kirol ekintza izan ziren: pilota, xakea, mountain-bikea eta karabina neumatikoaren txapelketa. Domekan, bestetik jai goiz-goizetik hasi zen mezarekin eta San Anton baserrietako animalien patroia izanda, antxume txuri bat izan zen mezan, umeen pozerako.

Domeka goizeko mezaren ostean, Kezka Dantza Taldekoek 'Soka Dantza' dantza zuten auzoko bizilagun batzurekin batera. Bitartean, askok salda bero, txorizo eta trikitixarekin gozatzen zuten. Auzoaren

sarreran, bestetik, Paulino Larrañaga artistaren ikasleen lan batzuren erakusketa egon zen, baina objektuak ikusteaz gain, nola egiten ziren ere ikusi ahal izan zen.

Umeek ere ondo pasatzeko aukera izan zuten pinatarekin. Eta joko honen ostean, Azitaingo ehun bat bizilagun bazkaltzeko bildu ziren.



LEIRE ITURBE

**A**urreko urteetan egiten zena moldatuz, aurtengoan jai bi besterik ez dira ospatuko Azitainen. San Anton urtarrilean eta Andra Mari abuztuan. San Anton jaiak Eibarren ospatzen diren lehenak izan dira hasi berri den urte honetan eta jende ugari bildu zen Azitainen.

KATU KALE

TABERNA

BIDEBARRIETA, 1

HO  
EI

EIBARKO  
HIZKUNTZA  
ESKOLA  
OFIZIALA

Jarduerak 140  
2008/2009

MATRIKULA LIBREA  
2007/08

Otsailaren 4tik 29ra

Argibide gehiago: 943 200614 telefonoz edo  
Eskolako web orrian: [www.eoieibar.net](http://www.eoieibar.net)

HIZKUNTZAK:  
ALEMANA, EUSKARA, FRANTSESIA ETA  
INGELESIA

## Adostasuna nagusi udal presupuestua onartzeko orduan

Aurreko asteko egunen egin zan udaletzeko pleno aretuan urteko osoko bilkuretan garrantzitsuenetakua, urte osorako aurrekontua onartzeko plenua hain zuzen. 21 ziñegotzixetatik 20k hartu eben parte botaziñuan (EB-Batua Berdeak-Aralar koaliziñuan Barojak lagatako aulkixa zeñek beteko daben erabagitzeke dago-eta) eta gehixenak aurkeztutako proposamenaren aldeko botua emon eben: PP alderdiko ziñegotzixak abstenziñuaren bidia hartu eban, bere alderdixak aurkeztutako zuzenketako batzuk azken orduan onartu zittuelako. EB-Berdeak-Aralar koaliziñoko ordezkariak, barriz, plenoko kontrako boto bakarra emon eban, koaliziñuak presentau eban 'osotasunari zuzenketa' eta beste 27 zuzenketa atzera bota zetsazen-eta.



Astelena frontoia Udalarena izatera pasatzeko 1'5 millioi euro erabilliko dira, osorik beria izateko falta jakon %40xa erosteko.

Plenuan parte hartu eben 20 ziñegotzixetatik 18k aldeko botua emonda, aurtengo aurrekontua adostasun haundixarekin onartu da eta, beraz, ziñegotzi gehixenen onarpen zabala izango dabe hor jasotako proposamenak. Ez zan besterik espero, aurreko legegintzaldixan 'oposiziñuan' egon ziran talde gehixenak (EAJ, EA eta PP)

udal hauteskunde ostian siñatutako hitzarmeneri esker gobernuo taldeko kide izatera pasau eta gero. PP alderdiko ordezkariak erdibidia aukeratu eta botaziñuan abstenidu egin zan, azken orduan alderdi popularraren zuzenketetako batzuk dokumentuari atxikitzia erabagi ebelako. EB-Batua-Aralarren kontrako botua ez zan ezustekua izan, Gabonen aurretik aurrekontuen borrariorian jasotakuak nola kritikau zittuen ikusitta. Orduan aurreratu eben moduan, 'osotasunari zuzenketa' egin zetsen koaliziñoko kidiak.

### Kritika gogorak

Gogor salatu zittuen, bestiak beste, Astelena frontoiaren %40 Udalak erosteko egindako operaziño "espekulati-bo hutsa". Izan be, behiñ holako inbersiñua eginda frontoiari erabille-


### INBERSIÑUETAKO PARTIDA NAGUSIXAK

Aurrekontu osuaren %27 inbersiñuetarako erabilliko dau Udalak, 10 bat millioi euro. Hiru atal nagusi dagoz aurrekontuetan: inbersiñuak, personalaren inguruan sortutako gastuak (11 millioi euro) eta gastu arruntak (14 millioi euro).

Inbersiñuetara begira ipintzen bagara, hónek izango dira aurtengo partidarik haundixena biharko dabenak:

- Astelena frontoia Udalaren osorik izateko falta dan %40 erostia 1.500.000 euro.

- Auzo edo komunidadietarako igogailuendako 600.000 euro.
- Ardantzan trenbidia estaltzia (pasiua egitteko) 600.000 euro.
- Armagintzaren Museoko bigarren fasia zabaltzia 400.000 euro.
- Herriko parkiak estaltzia 400.000 euro.
- Sansaburuko frontoia estaltzia 240.000 euro.
- Amaña eta Saratsuegin kirola egitteko pistak ipintzia 120.000 euro.




Trenbide gaiñetik pasiatzeko tokixa etara nahi dabe Ardantzan hasitta.

ra "sozialagua" emoteko eskeria egitten eben, aisialdirako emon leikiazen aukerak aztertuta. Udalbaterreko kidien soldatetan emondako igoeriarren harira zetorren beste keja, bestiak beste hitzarmenen ondotik eratutako komisiño barrixak eraginda ziñegotzixen soldaten partidaren %33ko igoeria egon dalako. Keja ez eben bape ondo hartu beste alderdixetako ordezkariak eta gogor erantzun zetsazen, "beste taldiekiko errespetu fal-

tia" agerixan lagatzia eta "asmo txarrez egindakua" izatia eta esandakua "gogor kritikatzeko modukua" zala aurpegi-ratuta. Osotasunari zuzenketa aurkezteko beste arrazoietakoa bat, "aurrekontuetan herritarren partehartzia bultzatzeko edo indartzeko ahalegiñik ez daguala" izan zan. Osotasunari zuzenketa hori atzera bota zan plenuan eta horrez gain, koaliziño berak presentautako beste 27 proposamen edo eskaera.





Aurreko eguenian aprobau zittuen 2008rako udal aurrekontuak, eguen arratsaldian egindako plenuan. Ixa 37 millioi euroko presupuestua da eta kopuru horretatik 10 bat millioi euro inbersiñuetan erabilliko dabe. Inbersiñuen ataleko partida nagusixak Astelena frontoia erosteko, trenbidia tapau eta pasiatzeko tokixa etaratzeko, kirol pista barrixak egitteko, Armagintzaren Museua haunditzeko, parkiak tapatzeko eta beste

hainbaterako erabilliko dira. Azken batian, herrixan aurten garatuko diran proiektuak aurrekontuetan horrendako aurreikusittako partidak baldintzatuta etorriko dira. Izan be, obra eta bestelako ekimenetarako kalkulautako gastuak batu dittue aurrekontuetako txostenian.

Sarrittan holako kopuru haundixetan galdu egitten gara herrittarrak eta geure buruari galdetzen detsagu 'zertan gastatzen dabe agintarixak geuk inpuetuetan pagatzen doguna?'. Etxe-barruko ekonomixia administratziak nahikua lan emoten desku, baiña aukeria izenez gero, udal aurrekontuko diru hori zertarako erabilliko genduke? Zeintzuk dira eibartarrok mejourauko gendukezen gauzak?



### Jose Luis Orbea 62 urte, jubilaia

Egiñ bihar daben lehelengo gauzia kaliak bihar dan moduan konpontzia da. Hau egiñ ostian, Matsarixan kontrolau biharko zebeu kotxiak eruaten daben abiaduria, oso bizkor juaten diralako. Nik herrixa hobetuko neuke, kaliak konpontzen eta holan.



### Roberto Elorza 63 urte, jubilaia

Lelenengo jakin biharko neban zenbateko aurrekontua edukiko neban eta gero hirixan zeintzuk diran arazo garrantzitsuenak. 'Eibar Merkatalgune Irekixa' kartela ipintzia ondo dagola ikusten badot be, merkatalgune hone-tara datozen kotxiak aparkatzeko leku gehixago bihar da.



### Elena Eguren 38 urte, administrarixa

Nik aparkaleku gehixago ipiñiko nittuzke, hori da garrantzitsuena, eta umientzako parke gehixago be egingo nittuzke. Baiña garrantzitsuena aparkaleku gehixago egittia da. Etxe gixiango ipiñi eta kotxiak lagatzeko leku gehixago egiñ, hori herrixan oso arazo haundixa dala uste dot.



### Cristina Beitia 33 urte, biltegiarixa

Urkirako eskillara mekaniko gehixago ipiñiko neuke, parke barrixak be egingo nittuazzen eta abar. Kotxiak aparkatzeko leku gehixago be egingo nittuazzen, herrixan aparkatzia oso gatxa dalako. 30 urtetik jublatu aurreko urtien artian dagozenentzat be ekingta eta laguntza gehixago ipiñiko nittuzke.

## Eibarren zertan inbertiduko zenduke dirua?

**EGOITZA NAGUSIA**  
Bidebarrieta 20 - behea

**M FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- Tanatorioa eta Errausketa labea Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurrenoko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

**Mugica Ehorzketa**  
Funeuskadi taldea

**TELEFONOA (24 ORDU)**  
**943 201 951**

**Gariteno** 1957an sortua  
GOZOTEGIA

- ETXERA banatzen dugu
- Ezkontza eta despedidetarako TARTAK

Julian Etxeberria, 6  
Tel. 943 20 24 51

**foto** orain  
**Urki 17** an gaude

erreportajeak 943 20 27 16  
ezkontzak 688 64 73 44  
estudioa **JAUJA**

..eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen 'Ilunabarrian' ekimenaren barruan Peio Rubio nekazaria eta Gipuzkoako Biolur-eko presidentea egon zen eguaztenean. Nekazaritza ekologikoaren inguruan egin zuen berba, honen balio, garrantzi eta onuren gainean.

## “Nekazaritza ekologikoak fabore egiten dio ingurugiroari”

### - Zertan datza nekazaritza ekologikoa?

Nekazaritza ekologikoarekin lortu nahi dena da, bai nekazaritzan bai abeltzantzan, produktu garbiak ekoiztea. Ez dira produktu kimikoak erabiltzen eta ez da ingurugiroa hondatzen, lehen aipatutako produktu kimiko horiek ez direlako erabiltzen. Guk ekoizten ditugun barazki edo abeltzantzako gauzak garbiagoak dira, ez dugulako erabiltzen inolako produktu kimikorik.

### - Produktuaren zaporean eta abar alde hori lgartzen da?

Batzuk igarriko dute eta beste batzuk ez. Hori bakoitzaren kontua da. Oso erlatiboa da, bakoitzak gustu ezberdinak baititu. Guk esaten dugu ez direla, bistara, ohiko produktuak bezain erakargarriak edo eleganteak, baina garbiagoak direla esaten dugu.

### - Zelntzuk dira nekazaritza ekologikoaren alde onak?

Alde batetik, oso ona da osasunarentzat. Gorputzean gero eta elikagai garbiagoak sartu, arazo gutxiago izango dituzu alderdi horretatik, janari aldetik. Bestetik, ingurugiroa ere ez da kutsatzen. Horrela, nekazaritza mota honek ingurugiroari ere fabore egiten dio.

### - Eta txarrak?

Nik azpimarratuko nuke, ez soilik nekazaritza ekologikoa, nekazaritza orokorrean hartuta, kaleko jendea eta baserriarren artean zegoen katea apurto egin dela. Hau da, garai batean, orain dela 40 bat urte, seguru asko Eibarko plazan denek baserriko produktuak erosten zituztela. Baina orain, bizimodua aldatu egin denez, beste era batera bizi gara, beste denda batzuk zabaldu ziren beste modu batera eta abar. Beraz, nik azpimarratuko nuke hiriko jendea baserrietako produktuak kontsumitzen hasi behar dela, guk bizi-

rik mantentzeko beharrezkoa dugulako eta jende gazteak baserrietan erreleboa emateko balio izan dezakelako.


### - Gero eta produktu gehiago ikusten dira etiketa ekologikoarekin.

Bai, hori da. Esan behar da, baita ere, gero eta kontsumitzaile gehiago dagoela. Gipuzkoan orain dela 15 urte nekazaritza ekologikoarekin hasi ginenean burlatuak sentitu ginen arraroa zela-eta, baina gaur egunean hori normaldu egin dela ikusten dugu. Jendea ulertzen hasi da euren kontsumorako nekazaritza ekologikoa zer den eta, horrela, jende gehiagok dihardu horrelako produktuak kontsumitzen.

- **Etiketa ekologikoa duten produktuak gehiago baloratzen dira?**

Bai, dena lotuta dago. Jendea kezkatzen hasi da (behi zoroak eta abar) nekazaritza mota oso industrial egiteagatik sortutako arazoekin. Azken finean, produktu guzti horiek guk jaten ditugu, eta jendea ea zer jaten duen kontzientziatzen hasi da. “Zer ari gara jaten?”, galdera hori askok egin diote bere buruari. Horrela, gaur egun nekazaritza ekologikoak sorturiko produktuak kontsumitzeko aukera dagoenez, jendea hori kontsumitzen hasi da poli-poli. Gainera, konturatu gara kontsumitzaile horiek natura kontuetan eta abar oso kontzientziatuta daudela.

**“Nekazaritza ekologikoarekin elikagai garbiagoak jaten ditugu eta ingurugiroa ez da kutsatzen”**



SILBIA HERNANDEZ

Jaten dugunaren inguruko argibide interesgarriak azaldu zituen Peio 'Ilunabarrian'-eko hitzaldian.

### - Nekazaritza ekologikoarekin nekazaritzak gorakada biziko duela uste duzu?

Nabari dugu gorakada bat. Izan ere, nekazaritza mota honek mezu bat darama barnean eta jende gaztea erakartzen du horrek. Guk beste era batean planteatzen dugu nekazaritza, egiten diren handikerietatik urrin, eta horrek jende gaztea erakartzen du.

### - Zure produktuak Internet bidez saltzen dituzu. Teknologia berriak eta lanbide zaharrak bateragarriak diren seinale?

Teknologia berriak erabiltzearen alde nago, beti ere prozesu naturala aldarazten ez badute. Gauza bat da teknologia berriak instrumentu onak izan daitezkeela, baina beste gauza bat da hauek nola erabiltzen diren. Horrela, prozesu naturalak aurreratzeko edo aldarazteko erabiltzearen kontra nago, baina gure lana errezteko balio izaten badu alde egongo naiz.

### - Nolako etorkizuna ikusten dionu nekazaritza ekologikoari?

Ona. Gainera, hemengo baserrieta-koak ez bagara kapaz jendearen nahiak asetzeko, kanpotik ekarriko dituzte produktuak. Badakigu Euskal Herrian nekazaritza ekologikoa oso txikia dela eta horregaitik esaten dugu alternatiba bat garela nekazaritzaren barruan.

# Aratostiak bixar hasiko dira Kezkaren koko-eskiarekin

Azken urtietako Aratoste 'goiztiarrenak' izango dira aurtenguak: Eguen Zurixa datorren astian ailegauko da, urtarrillaren 31n, baiña bixar bertan Aratoste girua zabaltzen hasiko da gurian, Kezka dantza taldiaren ekimen barri bati esker: koko-eskian jardungo dau koko-dantzari eta koko-marru konparsa batek, goixian goiz basarrikik basarri eta, illuntze partian, herriko erdiguneko kalietan, neguko jaixen amaieria markatzen daben Aratostietan ohikuak diran musika eta dantzekin.



GARIKONTZ OTAMENDI

Kezka-ko dantzariak eskinduko dituen dantzen ardatza makilla-dantzak osatuko dabe. Irudixan, iaz Arraten egindako saia.

U rte askotako biharraren emaitza izan da bixar Kezka dantza taldiak eskinduko dabena: "Jaixen, errituen, dantzen eta tradiziñuen behaketa, informaziño bilketa eta irakurketa lan luziaren ondoren ekin detsagu Aratostietako proposamen barriari. Eibarren plazaratuko dittugun koko-dantzari eta koko-marruak bertakua dira, berezixak eta nortasun propioa dakenak, baiña aldi berian inauterixaren izpiritu tradizional eta europarrian oiñarrituak eta tesuinguru horretan bete-betian txertatzen diranak. Ohitura bizixak ez dittugu horrenbeste eza-gutu, baiña Eibarko Aratostien inguruan Torbio Etxebarriak eta Juan San Martinek bildutakuak balixo izan deskue puzzle barri-rako pieza zahar batzuk be balixo zenkiela konturatzeko".

Koko-jantzi konzeptuaren inguruko arduria dago Kezkaren proposamenaren abiapuntuan: "Inauterixen billakaeriak eta merkaturatziak karnabalaren irudi barri bat zabaldu dau XX. gi-

## IBILBIDIA

08.30.- Merkatu plaza barrixan (Rialton) lehen emanaldixa.

09.00etatik aurrera, basarrixak: Barrundi, Arexitaigoikoa, Narru (Kutunegietabarrenengoa), Guenetxe (Kutunegietabarrenengoa), Argiñao (2), Untzeta, Sanjoangoa, Barrenetxe, Zelaikoa, Arizmendi, Arizmendiguena eta Gaztelu.

11.00etatik aurrera: Inarre, San Martin, Mendigoiti, Lezeta, Asola-Berri eta Sumendixa. Azitaingun poligonora urten eta Lazareto, Alzubarren eta Lezetabeletxe. Segidan, Arrateruntz joko dabe eta bidian Biriñao, Eskaregi-Erota, Maapila, Itsaso eta Mugitzabarri pasau eta gero, Arraten bertan Kantabria (Arratebakoetxe) aurrian egingo dabe goiz parteko azken koko-dantza.

15.00etatik aurrera: Zestero, Gorostagaineakoa, Gorostabeña, Gorostozpikoa, Iturrao, Mandiologaineakoa eta Mandiola-azpikoa.

Eguna illuntzen hasten danerako kalera jaitsiko da koko-dantzari eta koko-marruen konparsia, eta 19.00etatik 21.30xetara Eibarko erdiguneko kalietan ibilliko da Aratostietako talde berezi hau.

zaldixan. Koko-jantziak berba egittian, 'zertaz' galderarekin lotuta agertuko jakuz 'Indioz mozorrotuko naiz' moduko espresiniñuak, baiña inauteri tradizionalian koko-jantzixa zeozer nahasixago eta indefinidu moduan agertziak gain, ez dago 'zeozertaz' mozorrotzeko premiñarik". Torbio Etxebarriak ja-

sotakuari jarraituta, "Aratostietan nahikua da arpegixa baltzittutzia koko agertzeko".

## Kuestazifiuak neguko festetan

Kezkakuak jaso daben moduan, "neguko jaixetan ohitturia izaten da kuadrillatan baserriz basarri ibiltzia. Batzuk kantuan ibiltzen dira (Olentzero, Santa Ageda...) eta beste batzuk dantzan (karnabaletan, adibidez). Kantatu edo dantzan egiñ ondoren, basarritarrak zeozer emoten dabe, gehixenetan basarriko edo ortuko zeozer. Basarri bakotxaren aurrian dantza bat egingo dogu eta, ondoren, otarra pasau eta zeozer emon nahi izanez gero pozik jasoko dogu, eskia sinbolikua da, ez dago ezer emoteko obligaziñorik".

Asmua Eibarko basarri gehixenetara ailegatzia da, baina aurtien lehelengo urtia izango danez, "eta bidiak ikasten juateko, basarri sorta bat baiño ez dogu egingo. Arrateko dantzen neguko aurpegixa dira koko-dantzak eta, beraz, Arrate eta bere inguruko basarrixak bisitauko dittugu aurtien. Arrate, Mandiola eta Gorostako basarri batzutan ibilliko gara. Orduategixa be gitxi gorabeherakua da, ibilbidia osatzeko biharko dogun denporia alde zurretik jaikitia gatxa baita".

## Makilla-dantzak oiñarrixan

Konparsak eskinduko daben dantzia fox-trot eta arin-arin erritmora dantzatuko daben makilla-dantzia izango da. Basarri basarriko ibilbidian Adolfo Jainaga eta Unai Narbaiza trikitalarixak jardungo dabe eta kalera bajatzian, barriz, Elgoibarko Mauxitxa txarangiak hartuko detse errelebuak. Koko-dantzariak arduratuko dira makilla-dantzarekin: "Arrateko Amaren dantzariak dira koko-dantzariak, baiña jantzixak, eskuak eta oiñak karnabaletarako egokittu dittue. 8 koko-dantzariak jardungo dabe, buruzagi baten agin-duetara".

Koko-marruen taldea, barriz, irekixa bezin nahasixa izango da: Hartza eta Maria, Aixarixak, Masustak, Mamarruak, Burburi-xuak, Martin perratzaillia, Kattalin eta Manuela, Batista kojua eta Arraguetako amabirjiña...



FELIPE LOIOLA

Koko-marruen taldian, bestiak beste, azken urtietan gure artian ibilli dan Hartza ikusteko aukeria egongo da.

# Eibar.org webgunia barriztatu dabe Eibartarrak zerrendaren 10. urtemugan

Oin dala ez hainbeste urte 'internet' berbia entzun eta herritar gehixenendako gaixa erabat arrotza zan, urrutiko zeozer bailitzan entzuten genduan. Baiña gaur egun edozein ume, gazte eta ez horren gazteren eguneroko bokabularixuan barra-barra entzuten dira 'blog', 'web' eta beste hamaika berba. Urte gitxi pasau dira situaziño batetik besterako pausua emoteko, baiña saltua benetan haundixa izan da, horretan dudarik ez dago. Sarea fisikoki hedatzen jua dan maillan, interneteko mundu 'birtual' hori be hazten jua da eta aurtengo apirillian 10 urte beteko dittu 'Eibartarrak' posta-zerrendak. Horri lotuta etorri diran barrittasun guztien barri emon zittuen astelehenian Eibr.org alkarteko ordezkariak, Deporren egindako aurkezpenian.



SILBIA HERNANDEZ

**E**ibartarrak posta-zerrenda edo interneteko foroa jaixo zan ezer baiño lehen, 1998. urtian. Euskal Herri maillan lehelengueta-kua izan zan eta, sortzaillien berbetan, "oindiok be herri maillako foroen artian bizixenetakua da". Handik urtebetera, 1999xan, www.eibar.org atarixa sortu eben eta, atarixa martxan ipintziarekin batera, Eibar.org alkartia sortu zan, "Eibarko Internauten (EibarNauten) alkartia". Alkarteko kide dira asteleheneko aurkezpena egiñ eben Luistxo Fernandez, Josu

Mendikute eta Mikel Larrea-tegi, beste asko bezala. Lehelengua, gaiñera, hasieratik proiektuaren sustatzaille eta bultzatzaillia izan dan heñian, eboluziño osua bizitze-ko aukeria izan dau.

### Materixala pillatzen

Fernandezek eta Mendikutek presentau eben <http://eibar.org>

bar.org atari barriztatua: "Berrez Gabonetatik-edo dauka gaur egungo itxura barri hau. 1999xan sortu zan atarixa, jua dan mendian, beraz, baiña mende barrixari begira eta horri heltzeko prest. Izena aukeratzeko orduan, barriz, 'eibar.com' dominixua beste batzuk erositta zekan eta 'eibar.net' Udalak zekan,

hortik geuk 'eibar.org' aukeratu izana. Hasierako atarixan materixala pillatzen hasi giñan: Eibarko kantutegixa, Antxon Narbaizaren liburu bat... orduan ez eguan ezer eta gu gauza batzuk sartzen hasi giñan. Gaur egun Eibarraren bertan badagoz funtzionatzen daben beste webgune batzuk, Ego Ibarra batzordia- ren, Armagintza Museuarena eta beste hainbat, badago mugimendu piskat".

**Eduki barrixak sartu dittue webgunian: albistiak, eguraldixa eta agendia, bestiak beste.**

### Itxura barri eta eguneratua

Hasierako atarixa bere sasioan punta-puntakua izanda



Ezkerreko irudixan, peoriak hasieran zekan itxuria ikusi zeinkie, eduki nagusixetarako sarbidiek. Aldamenian, barriz, gaur egun blog itxuria dakan atarixa askoz be dinamikuagua eta osotuagua dala argi geratzen da.





Luistxo Fernandez (eskuman) Josu Mendikuterekin batera egon zan Deporren egindako aurkezpenian.

## LUISTXO FERNANDEZ: “Eibartarrak posta-zerrendia interneteko euskarazko foro bizixena da”

### - Zelako jendlak hartzen dau parte zerrendan?

Suertiagaittik edo batek daki zergaittik, itxura batian kontatzeko gauza interesantiak di ttuan jendia alkartu da, batzuk eibartarrak, eta beste mordoxka bat kanpokuak.

### - Zelako gaixen Inguruko eztabaldak egoten dira?

Egokixena sartzia eta irakortzia da.

### - Nundik etorri lelke zerrendaren arrakasta?

Funzionatzeko arau sinpliak inportantiak dira. Partaidetza publikoa da, hau da, izen-deiturekin identifikautako jendiak bakarrik hartzen dau parte, eta mezu guztiak artxibo publiko batian dagoz. Eztabaidatu leike, baiña modu zibilizatu batian. Hori, eta jarduna euskaraz dala. Interneteko euskarazko foro bizixena da, oiñarri simple horren gaiñian.

### - Eibar.org pegorla be sasoi barrixetara moldatzen juan da. Zelakua izan da eboluziñua?

Herrixaren ondare digitala sortu edo gordetzeko asmo batetik, berez barrizten doian webgune batera pasau da, eta komunidadia (blogak) dira ardatz nagusixa oiñ. Hedabide lokal baten traza haundixagua be hartu dau oin. Teknikoki, webgune estatiko eta baldar samar bat izatetik, webgune dinamiko eta aurreratu bat izatera igaro da, software libre euskaratuarekin egiña, gaiñera.

### - Eibarko blog komunidadia sortu zenduen 2004an, berbla askorendako oindlok nahilko

### ezezaguna zanlan. Internetekiko illura berezixa dago Eibarren?

Ez dot uste.

### - Zelakua da eibartarren blog komunidadia?

Nahasketa berezi bat, kanpoko eta herriko jendia. Blog batzuk aktiboak dira, beste batzuk mutu geratu ziran, etorri-barririk badago baita... Idazle jende batek, adibidez, bultzada nabarmena emon zetsan geuriari kanpotik etorri eta bloga egitten hasitta (Xabier Mendiguren Elizegi, Julen Gabiria, Volgako Batelariak, Sareinak...). Geure komuniaduari emon zetsen bultzadia, eta euskal blogosferari oro har. Teknofobia euskal intelektuallidadiaren adierazgarri izatetik, jarrera marginala (marginatua) izatera pasau da, neurri handi batian geurekin pausua eman ebelako lagun horrek.

### - Zeuenlan, bestiak beste, blog-a sortzeko aukerla eskintzen dozue, euskerazko ballabidlak eskura lpiñitta. Zer egin bilhar dau Eibar.org-en blog-a sortu nahl dabenak?

Alkarteko bazkide bihurtu (baiña ez da oso gaxa). Lehen urrats gisa, zerrendara apuntatzeko esango gentsan jendiari (eibar.org/zerrenda).

### - Teknologla barrixak garatzen diran abladla lkuslitta, pegorla etenbarik barriztzen juango zarle, sasoi barrixetara moldatzeko ahalegliñetan, ezta?

Sasoi barrixetara aurreratzeko ahalegliñetan, bereziki.

be, bistia atzera bota eta gaur egun daukan itxurarekin zerikusi gitxi dakala begibistakua da: “2004. urtian beste itxura bat emon gentsan, blog komuniadia udaberri partian martxan hasi zan eta holan sortu genduan Eibarren Euskal Herriko herri maillako lehelengo blog komuniadia. Barrikuntzak aittatuta, pegorriari gaur egungo itxuria emon gentsan aurreko hillian: albistegixa indartu egin dogu, lehenago albiste-jari-xua ez zan oso haundixa, baiña aurrerantzian albiste barrixaguak sartzen juango gara. Agenda bat sartu dogu, herriko ekitaldixen barri emoteko, eguraldixa ‘Instituto Nacional de Meteorologia’-tik zuzenian hartzen dogu (Euskalmet-ek ez desku horretarako aukerarik eskintzen), zorrion-agurrendako tartia dago, argazkixak ikusi leikez eta blog komuniadade barriztatua daukagu... hori danori ‘Plone’ software libriak eskintzen di ttuan baliabidiak erabillitta, dana euskera hutsian, egitten dogu”.

Posta zerrendaren 10. urtebetetzia aprobetxauta zeozer berezixa egingo dabe aurrerago eta euren esperientzia beste internautekin konpartitu nahi dabe: “Alkarte txikixa gara eta Eibarren jende asko dago, gure webera gerturatzeko gonbidapena luzatu nahi detsagu daneri, gu eza-gutu eta gurekin parte hartzera animatzeko, bai banaka zeññ alkarte gisa”.



Eibarnauten blogosferako kidien artian danetarik topau geinke. Saretik kanpo be, harremanak estutzen di ttue lantzian behiñ egitten di ttuen afarixetan. Eibartik kanpoko jendiak be bat egin dau eibar.org-rekin.

# Eskolak Euskaldundu-k ekitaldia egingo du bihar

**G**aur egun Euskal Herrian dagoen hezkuntza markoa dela-eta, iaz 107.768 sinadura batu zituen Eskolak Euskaldundu herri ekimenak. Besteak beste, eskolatik irtetea ikasle guztiak euskalduntzen ez direla aurpegiratu nahi izan zieten horren arduradun diren agintari eta instituzioei. Ekimeneko kideetako bat den Euskal Herrian Euskaraz elkarteko Igone Lamarainek eta Itsaso Izagirrek azaldu digutenez, "orain arte egin den sinadura-bilketarik handiena izan zen eta, hala ere, sinadurak aurkeztu eta egoera aldatzeko pausurik ez da eman, 100.000tik gora herritarren eskaerari ez diote inolako kasurik egin. Eskolaren bitartez euskera ezagutzeko eskubidearen urraketak hor dirau eta, are gehiago, atzerapausuak egon direla ere esan dezakegu, hainbat kasutan ingelesaren aldeko jarrera nagusitu eta euskera bigarren maila batean geratzen diharduelako. EAEko ikastetxetatik irteten diren 3 ikasletik bakarria euskaldundu egin da eta Iparraldeko egoera okerragoa da: han 20 ikasletik bakarria euskalduntzen da".

## Eskaeratik salaketara

Hori ikusita, aurreko kanpainan egindako eskaeratik pausu bat haratago joan eta salaketa da oraingoaren ardatza: "Euskara Euskal Herriko hizkuntza da eta hizkuntzak ez du zatiketa administratiboa ulertzen, ez dago euskarazko hiztegiaren. Administrazio autonomiko ba-



Herritarrei dei eginez ekitaldia egingo da bihar, 13.00etatik aurrera, Untzagan.

koitzak proposamenak egin ditzake, baina eskolak Euskal Herria euskalduntzeko bere lana bete dezan, Euskal Herri osora-

ko lege-marku bakarria behar du. Zentzu honetan Tontxu Campos, Max Brisson eta Perez Nievasek mahai gainean jarrita-

ko proposamenek ez dituzte inondik inora eskaeran jasotzen ditugun neurriak betetzen, guztiak ere hitz politik eta proposamen eskasak mahaigaineratu dituzte eta euskara berreskuratzeko prozesuari oztopo nabarmena jartzen diote. Gainera, hitz politik eta egunerokotasunean egiten dituztenak kontraesanean daude".

Hori dela eta, aipatutako hori agintariei zuzendutako postalak banatu dituzte azken egunotan, euren betebeharra bete eta gaiaren inguruko konpromezua har dezaketen eskatzeko. Horri lotuta, biharko ekitaldia prestatu dute Untzagan: 13.00etatik aurrera herritar guztiak dei egin nahi diete, euren presentziarekin aldarrikapenarekin bat egin dezaten. Kanpainako postalak han bertan betetzeko aukera ere egongo da.

## ESKAERAKO PUNTU NAGUSIAK

1. Hizkuntza eredu bakarria eta euskalduna.
2. Irakasle eta hezkuntzako langile guztiak euskaldunak izan daitezten neurriak, kontratu berri zein finko guztietan euskara perfil egokia eskatuz eta hezkuntzako langileak euskalduntzeko neurriak hartu; irakasle eskoletatik erdal adarra kentzea.
3. Sistemaren ebaluaketa egokiak egitea, neurri zuzentzaileak sartzeko.
4. Pedagogia eredu aurrerakoiaren bidez ikasleak hezkuntza jardueraren subjektu eta parte aktibo bilakatu euskaraz hitz egin dezaten lagunduz, ikasgeletako ikasle kopurua txikitu.
5. Euskara, euskal kultura eta nortasunari loturik ikasteko Euskal Curriculum aplikatzea.
6. Eskolaz kanpoko ekintzak euskaraz izan daitezten programak bultzatu.
7. Hezkuntza sisteman euskalduntzen ez duten ereduetan ikasten ari diren ikasleei murgiltze eredu aplikatu eta euskaldunduak izan ez diren dozenaka mila herritarrei euskara ikasteko laguntzak eskaini
8. Hezkuntza komunitateari baliabide pedagogiko eta ekonomiko egokiak eskaintzea.

**AKONDIA**  
  
**Albaitari Zentroa**  
 Julen Arano / M<sup>o</sup> Jesus Blanco  
**Bitto Sarasketa, 12**  
 ☎ 943 12 74 15

**PR publi resa**  
 - Pin-ak  
 - Metxeroak  
 - Kamisetak  
 - Boligrafoak...  
**PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK**  
**Armagin 3 - behea**  
 ☎ eta faxa: 943 70 14 97      Publi.resa@euskalnet.net

**LORADENDA**  
  
 - Lora eta landare natural eta lehorrak  
 - Ezkontzetarako lorak  
 San Juan 1 ☎ 943 20 33 29 EIBAR

Kanpoko hotzaren  
aurrean...



...ETXEKO  
BEROTASUNA

2008ko  
urtarrila

**AMAÑA**  
FONTANERIA

BAINUEN INSTALAZIOA ■ SUKALDEA, GASA ETA KALEFAKZIOA ■  
BAINUEN DISEINUA ORDENADOREZ ■ AIRE EGOKITUA

T. Anitua 12

Tel. 943 201 930

**"JARDINES" ITURGINTZA**

UR BERO ETA HOTZAREN INSTALAZIO MOTA GUZTIAK  
KALEFAKZIOA

BAINUGELARAKO INSTALAZIO SANITARIOAK

**ITURGINTZA, GASA ETA KALEFAKZIOA**



Tailerra: JARDIÑETA, 11 BEHEA

Telefonoa: 943 20 69 13

Faxa: 943 25 49 29

Mobilak: 615 78 26 38 / 615 78 26 37



**MUGICA**  
ITURGINTZA

San Juan 15 -EIBAR-

Tfnoa. 943 20 10 30



- KALEFAKZIOA
- FONTANERIA
- GAS INSTALAZIOAK
- BAINUETAKO BERRIKUNTZAK
- AIRE EGOKITUA
- EGUZKI ENERGIA
- LURREKO KALEFAKZIOA
- IKERKETA ENERGETIKOAK
- HANSGROHE txorroten banatzailea




## Epeltasun urdina

**B**eroa etxeetaraino eramateko sistemetan aurrerapen nabarmenak gertatu dira azken urteotan. Berritasunen artean aipatzekoa da 'bero urdina' izenarekin ezagutzen den hori: eskaintzen duen kalitate eta kontsumo bajaranengatik eta ematen duen erosotasun eta emaitza onarengatik azken urteotan arrakasta handia izan du gurean.

Europar zabalkunde handia izan du siste-

mak, eta Espainian Asturias aldean patentatu zuten sistema, 'Acesol, el Calor Azul' izenarekin. Langrean aitzindariak izan ziren sistema berria garatzeko orduan: 90eko hamarkadan elektrizitate bidezko kalefakzioa garatzen hasi ziren. Hainbat ikerketaren ondoren, bilatzen zihardutena aurkitu zuten: kontsumo bajuko sistema, errendimendu altuarekin eta prezio onean.



Sistemaren gakoa honakoan datza: erradiadoreek darabilten fluido termokonduktorea ez da ezertarako kaltegarria. SolAzul izeneko sustantzia horrek epeltasun ekologikoa, osasuntsua eta segurua sortzen du, zikinkeria edo poluziorik gabekoa.

Instalatzeko erraza da, erradiadoreez gain ez du bestelako instalakuntzarik behar eta epeltasuna modu konstante eta seguruan banatzen du etxean. Gaur egun kalefakzio sistemetan aurreratuena ei da adituen berbetan.



**BIDEBARRIETA 46**  
**Telefona: 943 20 65 59**  
**Faxa: 943 20 80 72**

- Deshumidifikazioa
- Klimatizazioa
- Kalefakzioa
- Aire garbiketa
  - Ionizazioa
  - Filtro eletrostatikoak
- Neurketa tresnak



### KALEFAKZIOA

Kalefakzio eta gas instalazioa. Mantenimendua.

### KLIMATIZAZIOA

Aire egokitua, bentilazioa eta aire kanporaketak.

### ITURGINTZA

Estaziño 14 - behea (ERAKUSKETA) TELEF. ETA FAXA: 943 12 18 33



## ELEKTIBAR, S.L.U. ELEKTRIZITATEA

**PROIEKTUAK**  
**ARGIZTAPENA**  
**INSTALAZIOAK**

**JOSU BENGUA**

*Aurrekontuak konpromezurik gabe*

Indalezio Ojanguren 2, behea, 27 EIBAR  
 ☎ 943 70 05 42 Faxa: 943 53 02 31

- \* Denetariko erreformak
- \* Akumuladoreen instalazioa
- \* Ate automatikoak
- \* Bero urdina



## Sistema egokia hautatzearen garrantzia

**N**eguko hotzari aurre egiteko ezinbestekoa da kalefakzio sistema egoki bat ezartzea, norbere premiak kontuan izanda; izan ere, ordaindu beharreko azken kopuruan sistema egokia aukeratu izanak zeresan handia izango du-eta. Eta hori kontuan hartzeko moduko gaia da, neguan etxean gastatzen dugun energiaren erdia baino gehiago etxea berotzen erabiltzen dugulako. Horregatik, aukeratzen dugun kalefakzio sistema merkea izatea garrantzitsua da, baina, prezioari egokitzeaz gain, aukeratutako sistemak hotzari aurre egiteko moduak eman beharko dizkigu. Beraz, sistema baten edo besteen alde egin aurretik, etxebizitza motari, etxearen kokapenari eta gure kontzientzia ekologikoari erreparatu beharko diegu, besteak beste.

Kalefakzioetan aukera zabala dago gaur egun eta, guri ondoen datorriguna aukeratzeko, honakoak kontuan hartu beharko ditugu: ezer




baino lehen, bizi garen tokian neguak nolakoak izan ohi diren aztertu beharko dugu. Hotz handia egiten duen tokietan tenperaturari eusteko moduko sistema egokia aukeratu beharko dugu, baina negua epelagoa den tokietan kalefakzio sistema sinpleagoarekin moldatu gaitzke. Berotu beharreko azalera zehatza ezagutzea garrantzitsua da, besteak beste ipini beharreko berogailu kopurua eta euren potentzia egokia aukeratzeko. Etxea berotzeaz gain, ura berotzeko premia izango dugun aurreikustea ezinbestekoa izango da. Bestalde, sistema batzuk ipintzeko etxe barruan lan handiak egin behar izaten dira (hodiak sartzeko, adibidez) eta horrek diru gehiago gastatzeko beharra dakar berarekin. Eta elektrizitatearekin funtzionatzen duten sistemak badauzkagu, energia metatzeko gailuak (akumuladoreak) dirua aurrezteko bidea emango digute, gaueko tarifa kontratatuta faktura erdira jaitsi daiteke-eta.

# INDA *iturgintza*

## UR, GAS ETA KALEFAKZIO INSTALAZIOAK

- **Industriarako instalazio bereziak**
  - **Fuel Aireak**
  - ...
  - **Proiektuak eta aurrekontuak**
- *Bainu eta sukaldeen erreformak*
  - *Gas instalatzaile baimendua*
  - *Iturgintza (arlu guztiak)*
  - *Gasa eta kalefakzioa*
  - *Altzari erakusketa*



# INDA

**Telefonoak:**

**943 12 18 64**

(tailerra)

**669 29 34 63**

(mobila)

**Faxa:**

**943 12 18 64**

**Asua-Erreka, 2**

## Eguzkiaren onurak aprobetxatzen

**E**guzki bidezko kalefakzioa ez da berria, mendeetako bizia dauka, energia iturririk garrantzitsuena eguzkia izan baita betidanik. Eraikin 'inteligenteek' gaur egun ere eguzki-energia aprobetxatzen dute (eguzki-kalefakzio sistema pasiboekin) eta azken belaunaldiko teknologia daramaten gailuak sortu dituzte. Eguzki kalefakzio aktiboarekin alderatuz gero (etxebizitzetako teilatuetan ipintzen diren panelekin edo eguzki bidezko ur-berogailuak) ezberdintasunik handiena prezioa da. Eguzki bidezko kalefakzio sistema

oinarrizkoan, eguzkiak eraikinaren sabaian dauden hodian barruko ura berotzen du eta berotutako urak eraikinean zehar egiten duen ibilbidean epeltasuna askatzen jotzen da. 70eko hamarkadaz geroztik hedatzen joan dira eguzki instalazio aktiboak eta, instalazioak berak zailtasun batzuk izan ditzakeen arren, energia sortzeko orduan ez dago kostorik eta, beraz, amortizazioa berehalakoa izaten da.

Eguzkiaren indarra, urtean dauden egun eguzkitsuak... kokapen geografikoa faktore garrantzitsuak izaten da sistema hau aukeratzeko orduan. Sasoi batean bakarrik oso toki eguzkitsuetan erabiltzen ziren horrelako sistemak, baina gaur egun gure inguruan gero eta hedatuago daude



eguzki-panelak. Horrelakoetan espezializatutako banatzaileek baikoitzaren neurria modurik egokienean moldatzen diren aukerak azalduko dizkie bezeroei, sistemari etekinik handiena atera ahal izateko. Euskal Herriko borda eta baserri inguru askotan gero eta gehiago dira eguzkiaren onurak aprobetxatzen animatu direnak eta hirietan ere bere tarteak egiten dihardu epeltzeko ezagutzen den sistemarik zaharrenean oinarritutako hau.



**Berriak**

**ATEAK  
LEIHOAK  
PERTSIANAK**

Juan Gisasola, 6  
Tfnoa.: 943 70 10 40  
Faxa: 943 70 10 50



**IGA S.L. KRISTALDEGIAK**

TAILER ETA BULEGOAK: Legarre, 15 -EIBAR-  
Tfnoa. 943 70 25 41 eta 943 70 24 95  
Faxa. 943 70 24 95 Mobil. 670 21 46 25

ERAKUSKETA ETA SALMENTA:  
Birjiñape, 1 beheka -EIBAR-  
Tfnoa. 943 20 20 40


ERAKUSKETA ETA SALMENTA:  
Zeharkalea, 12 -ERMUA-  
Tfnoa. 943 17 69 56



**ACHA Kristaldegia**

Errekatxu, 3 EIBAR  
☎ eta faxa: 943 20 39 03 c.acha@euskalnet.net

CLIMALITekin  
isolatzaile onena lortuko duzu  
akristalamendu bikoitzaz



**METALEZKO ERAIKUNTZAK  
ALUMINIOZKO ETA PVC-KO AROZTEGIA**

**Erakusketa**

Urkizu pasealekuko 26an  
(Tel. 943 12 74 01)

**Txonta, 30 - 1. eta beheka**

Tfnoak: 943 12 13 67  
Faxa: 943 12 01 50



# “Untzagan jaialdi alai eskainiko dugu”

Datorren barixakuan Untzagan, 23.00etan, kontzertua eskainiko du Flipin Folk talde eibartarrak. Iñaki (bateria), Jorge (baxua), Aitor (gitarra eta ahotsak), Txema (gaita, txirula eta koruak) eta Pauk (akordeoia, mandolina eta ahotsak) osatzen dute taldea. Eurekin kontaktuan ipini nahi izanez gero 665732640 (Aitor) telefonora deitu edo ortutxarra@euskalnet.net helbidera idatzi dezakezue.

## - **Notz eta nola hasi zintaten taldearekin?**

Folk musikan zebiltzan kide batzuk, orain jarraitzen duten kide bik, Flipin Folk sortu zuten 2001. urtean. Esan behar da, taldea osatzen dugunok Luther, Kafha eta Adunia bezalako taldeetatik gatozela, besteak beste. Ondoren, hainbat aldaketa izan ostean, orain osatzen dugun taldea geratu da 2006. urteaz geroztik, kide batzuk taldea utzi eta beste berri batzuk sartu direlako.

## - **Zeln musika mota egiten duzue?**

Guk egiten duguna folka da. Hala ere, guk folka oinarri bezala hartuta, beste musika batzuen kutsua ematen diegu abestiei. Horrela, nik uste rock dezente dagoela gure lanetan, taldeko beste bat eta ni rock mundutik gatoz-eta. Folka oi-

nari hartuta rockarekin, poparekin, skarekin, reggaearekin eta funkarekin nahasten dugu. Musika martxosoa egiten saiatzen gara, gainera, jendearekin harreman estua edukitzen dugu kontzertuetan.

## - **Folkak tradizio handia du Euskal Herrian.**

Bai. Ni talde honen kide izatera pasa nintzenean sartu nintzen folkaren munduan, baina beti izan dut entzungai irratian. Guk egiten dugun folka, hala ere, irlandarragoa edo galiziaragoa da, orain euskalduna ere egiten hasi gara, baina orain arte horrela izan da. Euskaldunarekin alderatuz, irlandarrak beste instrumentu batzuk erabiltzen dituzte: gaitak, mandolina eta txirula, adibidez.

## - **Zaila da musika munduan sartu eta irautea?**



EKHI BELAR

Bai, ez da oso erraza egia esan. Musika munduan dagoen jende asko ez da musikatik bizi, era batean esanda: klaseak ematen ditu, ekoizle bezala aritzen da edo besteek bezala lan arrunt bat dauka. Gaur egun, uste dut talde on asko dagoela, baina inor ez dela besteengandik nabarmentzen. Lehen ez zeuden orain dauden aukerak, izan ere, gaur egun gitarra on bat erostea, entseguetarako lokala izatea eta abar errazagoa da. Bestalde, 'myspace' eta 'youtube'-k laguntzen dute bakoitzaren lanak jendearengana heltzeko. Lehen, jendeak aukera zeukan diskografika batean sartzeko, baina gaur egun askok euren diskografika propioa dute edo eurek ekoizten dituzten euren lanak. Gauzak aldatu egin dira eta negozioa horren bueltan dabil, ezin lekua hartuta.

## - **Zeln bakarlarik edo taldetan inspiratzen zarete edo zelen eragina daukazu?**

Guk leku askotatik jasotzen dugu eragina. Niri rocka pilo bat gustatzen zait, gitarristak ere... Celtas Cortos, Boston, Mato Congrio eta beste folk talde askoren eragina daukagu, baina, niri, adibidez, Sutagar ere asko gustatzen zait, Ska-p ere gustuko dugu, horrela, musika mota askoren eragina jasotzen dute gure lanek.

## - **Zeln gal jorratzen duzuen abestietan?**

Joan den urtera arte abesti

instrumentalak egiten ginen, baina konturatu ginen ahotsa oso garrantzitsua dela, bai publikoarentzat entretenigarriagoa izateko bai zerbait adierazteko. Musikak zerbait esaten du, baina hori difuminatu egiten da. Beraz, orain dela urtebete abesten hasi ginen eta horrela jarraitzen dugu. Gure abestietako batek oroitzapenak tratatzen ditu, beste batek makinaren moduan bizi garela aipatzen du, asteburuen inguruan aritzen da beste bat, eta abar. Beraz, kaleko edo inguruko gaiak jorratzen ditugu.

## - **Disko edo maketarik grabatu duzue?**

Bai, maketa bi grabatu ditugu jada. Hasierako esperientzia bezala ondo egon da. Lehenengoa grabatzeak lan handia eman zigun, muga oso goian jarri baikenuen. Baina bigarrena grabatzeko orduan, hori jakinda, proposatu genuen gure buruak ez asko nahastea eta dena zuzenago egitea. Horrela, uste dut bigarrena hobeto irten dela, nahiz eta oraindik masterrak egitea geratzen zaigun.

## - **Datorren barixakuan Untzagan kontzertua eskainiko duzue. Zer aurkituko du bertara hurbiltzen denak?**

Jaialdi alai bat aurkituko du. Jjendearekin harremana sortu nahi dugu, mugitzea, dantzan egitea eta kontzertua entretenigarria izatea. Nik uste dut jendeak ondo pasatuko duela.

AITOR SOLOGAISTUA, FLIPIN FOLK TALDEKO GITARRAJOLEA



# teen-ajeak



*Iraider Garcia  
Errota Gaztelekuko  
beginale berriema da.  
umeak oso gustoko ditu  
eta Gaztelekuan  
arratsaldeak pasatze  
sombidapema egiten  
die gastei.*

## “Betidanik gustatu zait umeekin lan egitea”

### - Zer dela-eta animatu zinen begirale izatera?

Betidanik gustatu zait umeekin lan egitea. Gizarte Integrazioa ari naiz ikasten; orduan, Astixak proposatu zidan eurekin batera lan egitea eta horrela hasi nintzen.

### - Denbora gutxi daramazu Errota Gaztelekuan. Nola ikusten dituzu umeak?

Asteburu bakarra egon naiz eta astebururo egongo naiz. Nik gustora ikusi nituen. Gainera, Gaztelekuko arauak bereganatu dituzte eta ondo portatzen dira.

### - Zer nolako ekintzak egiten dituzue Gaztelekuan?

Denbora gehiena nahi dutena egiteko izaten dute; gehienak ordenagailuetan edo ping-pongean ibiltzen dira. Laister makrolehiaketa bat hasiko da; gainera, grafiti eta break-dance tailerrak ere egin dituzte. Eurek proposatzen dituzte.

### - Gazteak bertara joateko animatuko zentuzke?

Bai, bai. Orain, neskak, batez ere, gutxiago mugitzen dira eta esan behar dugu ez dugula inor jaten (barreak). Gainera, oso giro ona egoten da eta neguan kalean ez egoteko alternatiba bat bezala ere hartu daiteke.

## Musika talde Hikaragarria

Gitarra itxura duen kartoi bat hartuta asko egin dute amets milaka pertsonen aurrean kontzertua eskaintzen dutela. Dutzan ere batek baino gehiagok, denok ez bada, bere ahotsa noraino iristen den frogatzen du, jendetza ikaragarri handi baten aurrean balego bezala. Antzera hasi ziren ‘Hikara’ taldekoak baita ere eta poliki-poliki euren ametsak betetzen ari dira.

Alex (baxua) eta Erik (gitarra) hainbat akorde ukitzeko biltzen ziren lantzean behin.

Musika zen euren afizioa eta hortan aritzen ziren. Ondoren, jende gehiago hurbildu zitzairen, baina Aroa agertu zenean, behar zuten abeslaria aurkitu zutela konturatu ziren. Talde bat sortzeko, bestalde, bateria bat beharrezkoa zela pentsatu zuten, eta Erikek Koldo ezagutzen zuenez, baterijolea bera izango zela erabaki zuten. Hori da ‘Hikara’ taldearen hasiera.

Hasiera horrelakoa izan zen, baina argi daukate talde osatu eta gero musika munduan lekua hartzeko bidea



## HOROSKOPOA

### ARIES

Aldi berri bat hasiko da zure bizitzan. Urdiri egongo zara horren aurrean, baina ez duzu zertan horrela sentitu, dena nahi duzun bezala irtengo baita. Hala ere, ondo pentsatu aurrera pauso bat eman baino lehen.

### TAURUS

Non zabilta Taurus maitea? Mapan galduta zaude, inork ez daki zutaz ezer! Berriz ere planeta honetan lurra hartu beharko zenuke, izarretan ibiltzea ondo dago, baina beti horrela ibiltzea ez da bater egokia!

### GEMINI

Batetik irten eta beste batean sartu! Zurea bai dela marka ederra Gemini maitea! Lasai, gripea azken asteotan lagun izan baduzu ere, zure gorputzak birus guztiak uxatzea lortu ditu. Sasoi onaren garaia iritsi da!

### CANCER

Urte hasiera ez da batera ona izan zuretzat, baina lasai, bidea argituko zaizu hemendik aurrera-eta. Musika gehiago entzun beharko zenuke, izan ere, alaitasun kutsu bat falta zaizu. Bizi ezazu gehiago bizitza!

### LEO

Oso lanpetuta ibiliko zara hurrengo egunotan. Alde batetik eta bestetik lan eta ardura ugari izango dituzu, beraz, estresatu baino lehen, aldi bitan edo hirutan arnasa sudurretik sakon hartu eta ahotik bota ezazu.

### VIRGO

Bai Virgo, datorren astean Aratosteak ospatuko dira eta zu, beti bezala, koko-jantzi gabe zaude oraindik. Hala ere, inprobisatzeko orduan oso ona zara eta seguru koko-jantzi dibertigarriren bat asmatzen duzula!

### LIBRA

Dantzarako gogoia izango duzu aste osoan zehar. Badirudi aste-buruetan gorputza astintzea zure-tako ez dela nahikoa, eta edozein momentu aprobetxatzen duzu eskeletoa mugitzeko. Bat, bi, hiru... maaaambo!

### SCORPIUS

Txori gehiegi duzu buruan. Ametsak amets dira, errealitate bihurtzeko oso zailak, baina argi dago, nahi izanez gero, horiek bete ditzakezula. Zure esku dago dena, baina errealistagoa izan beharko zinateke.

### SAGITTARIUS

Antzepenerako dohaiak dituzu. Pentsatu al duzu Hollywoodera jauzia ematea? Star Sistemean ederki murgilduko zinateke, luxua, handikeriak... gustuko dituzu, ezta? Izen artistitiko pentsatzen hasi zaitezke!

### CAPRICORNIUS

Capricornius maitea, ezin duzu pertsona hori burutik kendu? Obsesioa bihurtu daiteke, baina, egia esan, hori da maitasuna, obsesio bihurtzen den zerbait. Kupidok lan ederra egin du, hori aitortu beharra dago.

### AQUARIUS

Ez sinistu telebistan esaten denaren erdia ere, tentela dirudizu! Egia esan, inuzente samarra zara, esandako edozer gauza sinesten duzu. Ez zaitez hain sineskorra izan eta, ezer baino lehen, birritan pentsatu entzundakoa.

### PISCIS

Azkenaldian beroegi zabilta Piscis maitea. Sexua gora, sexua behera, ez duzu beste ezer buruan! Hala ere, lasai, ingurukoak ere antzera dabilta-eta. Pentsatu al duzu nola hoztu berotasun guzti hori?



oso zaila dela. Koldok aipatzen duen bezala, "gaur egun talde asko dago gogo askorekin eta ez da erraza leku bat hartzea". Komunikabideen arreta lortzea ezinbestekoa da talde baten musika jendearengana iristeko, baina "komunikabideetan beti jende bera ikusten da eta egiten duzun musikaren arabera oso zaila da komunikabideetan sartzea".

'Hikara'-k Gaztea Maketa Lehiaketan hartzen du parte, horrela, "hautaketak internet bidez egiten direnez, jendeak talde guztiak entzuteko aukera dauka", Koldoren esanetan. Internet, gainera, gaur egun musika talde txiki edo berriak bultzatzeko tresna bezala erabiltzen da. 'Hikara'-k myspace.com webgunean bere txokoa dauka (myspace.com/hikararock) eta, horrela, "bakotzaren musika jendeari erakustea askoz errezagoa eta doha-koa da".

#### Pozik lehen kontzertuarekin

Koldo baterajoleak aipatzen duenez, "ez da erreza gure musika deskribatzea, gainera ez zaizkigu etiketak



**Euren musikak Interneten txokoa du: myspace.com/hikararock klikatuta entzuteko aukera dago.**

gustatzen, baina busti esker, esan dezakegu rock musika egiten dugula". Led Zepellin, Metallica, Guns N' Roses, Queen, Audioslave eta Tool bezalako taldeen eragina dute, besteak beste. Hala ere, aipatzekoa da euren abesti propioak dituztela, hau da, euren konposatzen dituztela abestiak, nahiz eta "zuzenean bertsiotzat ematen diogun".

Joan den barixakuan lehen kontzertua eskaini zuten Koskor tabernan. Protagonistek adierazten duten bezala, "espero genuena baino hobea izan zen". Lehen kontzertua

izanda, nahiko urduri zeuden taldekideak, baina behin jotzen hasita urduritasun guztia joan egin zen. Gainera, espero zutena baino jende gehiago hurbildu zen kontzertura eta hauei gustatu zitzaizela uste dute.

'Hikara' taldekoek badakite bidea luzea eta gogorra izango dela, baina argi daukate behetik hasi behar dela. "Lan asko egin, asko entsaiatu, abesti berriak egin eta, aukera badugu, diskoren bat grabatzea nahi dugu", aipatzen du Koldok. Hori bai, kartoizko gitarrak alde batera laga eta elektronikoa hartuta.



### Badator derby!

**N**ork esango zuen joan den urtean, Realaren lehen mailan eta Eibar 2.B mailan zegoen an, aurten gure bideak lehiaketa ofizial batean elkartuko zirela? Astebete besterik ez da falta Real eta Eibar Anoetan Liga partida jolasteko. Txikitatik, derbyak Athletik eta Realaren artekoak izan dira, eta, hara non, aurten gu gaude hor sartuta.

Ez dakit zeinek irabaziko duen, baina eibartarra izanda sentitzen dudana harrotasuna inork ez dit kenduko, partida irabazi ala galdu. Askotan, apaltasun pittin bat ez dago batere gaizki, eta aurten Real sufritzen ari da bigarren mailan. Akaso pentsatuko zuten berriro mailaz igoko zutela jolastu gabe, izenarekin bakarrik...

Polita litzateke aspaldi bezala zaletuak trenean abiatzea Donostiaraino, bertan giro itzela bizitzea, eta lehen mailako derby baten usaina sentitzea. Gure esku dago, zergatik ez? Hemen-dik jendea animatzea gustatuko litzaidake. Joan zaitzte Donostia, nahiz eta zelaira ez joan (sarrerak seguraski ez dira merkeak izango). Ez dakigu zenbat urtetan errepikatuko den derby hau Liga txapelketan. Real gora begira dago, baina... agian goiz Bilborantz abiatu beharko gara eibartarrok lehen mailako derby bat bizitzera!

**Borja Rodríguez**  
(KAZETARIA)

## Uniko ikasleak Alemaniara

Aurreko astelehenean abiatu zen Uniko Goi Mailako Nazioarteko Merkataritza ikasle talde bat, irakasle birekin, Alemaniako Dortmund hirira. Bertako Lanbide Heziketako ikastetxe bat bisitatu dute, baita enpresa batzuk ere. Astebeteko bidaia izan zen eta, aurrerago, hango ikasleak etorriko dira hemengo errealitatea ezagutzera.



## La Sallekoak eskaladan eta esgriman

Urtarrilaren 15ean eta 18an La Salle Azitaingo DBH 2ko ikasleak Elgoibarren egon ziren eskalada ikastaroa egiten eta, bide batez, ikasitako praktikan jartzen. Eta DBHko 1. eta 3. mailako ikasleak, berriz, esgriman trebatzeko aukera izan zuten urtarrilaren 12an eta 19an. Esan digutenez, kasu bietan ikasleek "elkarrekin goiz zozagarria pasatzeko aukera izan zuten".



## Urrezko hiru domina Deporreko atletentzat

**E**ta ez edozein probatan gainera, pista estaliko Euskadiko txapelketan baizik. Jokin Azkoaga juniorrak 400 eta 800 metrotako lasterketak irabazi zituen Donostian jokaturako txapelketa horietan eta maila bereko Ane Zabala nagusi izan zen pisu jaurtikit. Azken hau, gainera, bosgarrena sailkatu zen altuera jauziaren proban. Jubenilen mailan ere nabarmendu ziren Klub Deportiboko atletak eta, horrela, Ider Agirreña dominetik gertu izan zen, 4. postuan sailkatu baitzen jauzi hirukoitzean eta hesiekin egindako 60 metroko lasterketan; Peio Osoro jubenil mailako lehen urtekoak, bestalde, bere bereak dituen probatan jardun ez arren, 5.a izan zen 800 metroko lasterketan eta 6.a 400ekoan. Guztien entrena-



**Peio Osorok bikain jardun zuen bere-bereak ez dituen hainbat probatan.**

tzaila den Inma Urkiola pozik dago jardunaldi horretan atleten emandako erantzunarekin, "jakinda, gainera, *Laura Albistegi altuerako espezialistak ezin izan zuela jardun gurekin*". Lan onaren fruituak begibistan beste behin.



## Garaipen erraza Eibar Rugby Taldearentzat

**A**urkaria ere sailkapeneko beheko postuetan dagoen arren, inolako eragozpenik gabe nagusitu ziren gure herriko rugbilariak domekan Unben jokaturako norgehiagokan. Azken emaitzak (58-0) argi adierazten du eibartarren nagusitasuna, 20. minututik aurrera gero eta garbiago ikusi zena. Universidad de Zaragozak puntu bi ditu bakarrik, Getxorekin berdindutako partiduan eskuraturakoak, eta eibartarren lehen entseguarekin batera berehala eman zuen amore.

Partidua, dena dela, Eibarko taldeko jokalarik gazte batzuen kasuan esperientzia hartzeko baliagarria izan zen. Junior mailako hiru jokalarik (Mikel

Gallego, Haritz Bilbo eta Axier Gallastegi) debutatu zuten Hierros Anetxeko lehen taldearekin; aurretik zelaian zeuden Gaizka Arrizabalaga eta Iñigo Arizagarekin, aldi berean 19 urteko bost jokalarik alineatu zituen Eibar Rugby Taldeak. Hor ikusten da Alfredok, Maxik, Ramonek, Laskuk etabarrak egindako lanaren fruitua.

Garaipen horrekin, kontuan izanda Atlético San Sebastián liderrak galdu egin zuela azken jardunaldian, eibartarrak liderrarengandik puntu bakarrera daude une honetan. Hurrengo jardunaldian Bizkaira joango dira, Getxoko bigarren taldeari bisita egiteko.




## Ateak zabalik jardunaldia gimnasia erritmikoan

**H**ilaren 19an Ipurua gimnasia erritmikoko taldeak ateak zabalik egin beharreko entrenamendu saioa antolatu zuen eta bertan izan ziren gure herriko ikastetxeetako eta Ipurua Klubak gimnasia erritmikoa ematen duen beste hainbat tokiko ordezkariak. Eibartik (batez ere, La Salle eta San Andres ikaste-

txetik), Markinatik, Debatik, Mutrikutik eta Zarautzetik etortutako 51 gimnastak entrenatu zuten kirol horrekin lehenengo kontaktua izateko baliagarria izan zen saioan. Ordu biko entrenamendu saio horretan hainbat aparaturekin jarduteko aukera izan zuten eta, aurretiaz ere, errepikatzeko asmoa dute antolatzaileek.

## Binakako txapelketaren partidua Astelenan

**O**raingoan Eugi eta Lasa III.a eta Koka eta Beginoren arteko norgehiagoka jasoko du frontoiak domekan, arratsaldeko 17.00etan hasiko den jaialdian. Sailkapeneko behe postuetan daude bikote biak eta asko hobetu beharko dituzte orain arteko joko eta emaitzak finalerdietako ligaxkan sartzeko. Atzo eguerdian egin zuten pelota aukeraketa. Jaialdiko lehenengo partiduan, Galartza V.a - Zubieta eta Uriarte - Goñi III.a bikoteek neurtuko dituzte indarrak eta azken partiduan, bestalde, Larralde - Merino I.a eta Apezetxea - Arizmendi izango dira, nor baino nor.



## Eibarrek Ferrolgo Racing hartuz hasiko du bigarren itzulia

Joan den domekan Sportingen aurka 0-3 galdu ostean, Eibar KE-k Racing de Ferrol jasoko du domekan 17.00etatik aurrera Ipuruan garaipena lortzeko esperantzarekin. Nahiz eta joko ona egin, Sportingek Manixen taldea jipoitu zuen, baina entrenatzaile armaginak aipatu zuen bezala, "hori atzean geratzen da eta aurrera egin beharra dago". Eibar, bestetik, Real B-n jokatzen duen Mikel Balentziaga fitxatzeko ahaleginak egiten ari da. 19 urte azpikoen Espainiako selekzioan internazionala da Balentziaga eta defentsa moduan aritzen da ezker hegalean.

Eibar B-k, bestalde, Amorebieta jasoko du bihar 18.00etatik aurrera Unbeko beheko zelaian. Aitor Iturberen mutilek Zallari 0-1 irabazi zioten joan den asteburuan eta 6. postuan daude kokatuta igoera fa-

**Manix zigortuta dago hurrengo jardunaldi bietarako.**



sea jokatzeko aukera ematen duten postuetatik puntu bakarrera.

### Foball Eskolaren bilera

Eibar KE-k, bestalde, Foball Eskolan ize-na eman duten haurren gurasoak Portalean urtarrilaren 29an arratsaldeko 19.30etan egingo den bilera baterako deitu ditu. Bertan, ekimen honi buruzko nondik norakoak azalduko dira.

## Garaipen bikoitza xakelarientzat

Aurreko asteburuan emaitza bikainak lortu zituzten Deporrek xakelariek. Alde batetik, Haritz Garro, Diego Olmo, Jon Arana eta Manuel



Lopezek osatzen duten Lehenengo mailan dabiren taldeak Debako San Roke Xake Taldea 4-0 garaitu zuen. Bestetik, Hirugarren mailan dabiren taldeak, Edu Olabe, Emilio Freire, Mikel Baenak eta Mikel Larreategik osatzen dutenak, Bilabona B garaitu zuen 3.5-0.5.

Asteburu honetan, Lehenengo mailako taldeak Mutrikan jokatuko du bertako Txaturanga taldearen aurka. Hirugarren mailakoa, bestalde, Azkoitia Anaitasuna Kalkete B-ren aurka arituko da.



## Teka - Arrate lagunartekoa bihar Santanderren

Europako Txapelketa dela-eta, ASOBAL liga eten egin da. Hala ere, JD Arrate lanean ari da eta geldiuena baino lehenago zeraman bide ona jarraitu nahi du. Horrela, bihar lagunartekoa jokatuko dute Viktor Debreren mutilek Santander-ko La Albericia kiroldegian Teka Kantabriaren aurka 19.00etatik aurrera.

Lehen Nazionaleko taldeak, bestalde, irteera zaila zuen joan den asteburuan, izan ere, lehen sailkatuaren etxean jokatzen zuen, Adelma Sinfin kantabriarren aurka. Hala ere, Imanol Alvarezen mutilek neurketa txukuna jokatu zuten eta 10 minuturen faltan 3 puntutara egotera iritsi ziren. Baina kantabriarrek azken minutuetan euren nagusitasuna erakutsi eta 38-30 irabaztea lortu zuten. Asteburu honetan, Lehen Nazionalekoek Trapagaran hartuko dute Ipuruan domekan 12.30etatik aurrera.

Herri Irratia Eibar  
Loyola Media

**S.D. EIBAR - RACING FERROL**

Jarraitu partidua:  
**Borja Rodríguez**  
eta **Herri Irratiko**  
kiroletako taldearekin

Urtarrilak 27 domeka, 17.00etan

**90.7 Fm**

## Eski txangoetarako izena emateko epea zabalik

**K**lub Deportiboko eski batzordeak zabalik du datorren hilabetean egingo diren irteeratarako izena emateko epea. Otsailaren 16/17ko asteburuan helduentzako txangoa dago antolatuta eta, hurrengo astebururako, 23/24rako umeena egingo dute. Azken irteera horretan LHko 5. eta 6. mailakoek hartu dezakete parte, eta baita ESoko 1. eta 2. mailakoek ere. Izena emateko, Deporrek bulegoetatik pasatu daiteke martitzen eta eguenetan, arratsaldeko 17.30etatik 20.30etara.



## Debabarrena-Kirolgi UCI-ko talde berria dagoeneko

**B**izkaia-Durango taldearekin batera, Klub Deportiboko emakumeen txirrindulari taldea UCI mailako euskal taldeen bikotea osatzen du. Aurtengoa izango da maila horretan parte hartuko duen lehen denboraldia gure eskualdeko taldearentzat eta Juanjo Sebastianek zuzenduko duen taldea honako txirrindulariek osatuko dute: Maria Gallastegi, Nekane Lasa, Itxaso Leunda, Ane Olite, Inma Rafael, M<sup>a</sup> Jesus Sánchez, Etxedona eta Bizkaia taldetik eto-

rritako Maitane eta Naiare Telletxea.

Emakumezkoen UCI mailan 34 taldek hartuko dute parte: euskaldun birekin batera, Italiako 9, Holandako eta Frantziako

4na, Suitzako 3, Austriako, Belgikako, Britainia Handiko eta Alemaniako beste bi eta, azkenik, Poloniako, Errusiako, Estatu Batuetako eta Hong-Kongeko bana izango dira.



LEIRE ITURBE

## Pelotako Udaberri Torneoa abian da

**K**adete eta senior mailako bikote bannarekin eta jubenetako birekin hartuko du parte Klub Deportiboko Udaberri Torneoan. Gaur txapelketa horretako partidua bi jokatu dira Armeria Eskolako frontoian, 19.00etan hasita: lehenen-

goan Leturiaga-González kadete bikoteak Urnietako ordezkari izango dute aurrez-aurre eta, jarraian, Arrillaga-Agirrebeña seniorrek Lazkaokoen aurka jardungo dute. Jubeniletako bikote biek kanpoan jokatu dute: Hidalgo-Alvarezek Billabonan gaur

eta Zubizarreta-Unamunzagak Zumaian bihar.

Euskal Ligari dagokionez, Ipurua kiroldegian jokatuako partiduetan, Benigoetxeak 22-3 irabazi zion Aurtenetxe lezamarrari eta Labaka-Egaña bikoteak 12-22 galdu zuen Elorriko ordezkarien aurka.

## Urbateko waterpolistak maila eman zuten

**E**uskal Herriko ligaren bosgarren jardunaldian, Urbat-Urkoitronikek Leioako Master Askartzaren bisita jaso zuen asteburuan eta, maila onean jardun bazuen ere, azkenean 8-16 galdu zuen talde beterrano eta indartsuaren aurrean. Lehenengo laurdenean aurre egin zioten eibartarrek Askartzari (4-5 amaitu zen) eta azkenean 3-2koa izan zuten alde, ordurako partidua erabakita bazegoen ere. Miguel Pérezek hiru gol sartu zituen eta Jol Sologaiak, Anartz Mitxelena, Antonio Ruizek, Zigor Etxeberriak eta Iñigo Unzetak bana. Asteburuan Irunen jokatu dute Urbat-Urkoitronikekoek, Oñasoren aurka.



## Kalamuako judokak txapelketa autonomikoetan

**K**alamua judo taldeko laukote bat izan zen Logroñoako Adarraga frontoian denboraldi honetako txapelketa autonomikoetan, eta baita oso maila onean jardun ere, lau judoek dominekin etorri baitziren, hiru kasutan, gainera, domina bat baino gehiagorekin. Unai Soralezek urrezkoa irabazi zuen seniorretan, Natalia de Diosen urrezkoa 23 urtetik azpikoan eta zilarrezkoa seniorretan, Aitor Villalbak urrezkoa juniorretan eta zilarrezkoa seniorretan eta Nekane Muguruzak zilarrezko bi, bat alebinetan eta bestea infantiletan.





## PROTAGONISTA

### JOSE ANTONIO ETXENIKE

Donostiako Musika Hamabostaldiko zuzendariak operaren inguruko hitzaldia eman zuen Portalean. Muntaiak desberdinak eta operak gaur egun munduan bizi duen egoera izan ziren tratatutako gaiak Martitzetan Berbetan en baruan.

## euskeraren txokoa

**Sel herri erakarri ditu Uemak aurten.** Euskara nagusi den lur gunea osatzeko asmoarekin erakarri ditu herri horiek Uemak eta uda aurretik sartuko dira Azpeitia eta Obxandio Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean. Zestoan egindako batzar nagusian aurten go egitasmoen oniritzia eman zien alderdi anitzez osatutako Uemako zuzendaritza berriak.

**Herriko etxeetarako euskara plana.** Ipar Euskal Herrian herri eta kantonamenduetako bozak hurbil direla eta, Kontseiluak arau sorta proposatu die hautetsiei, modu horretan herriko etxeetan euskarari ofizial maila emateko plana kaleratuz. Deliberoak 30 artikulatu ditu eta, euskararen erabilera arautzeaz gain, herri bakoitzeko egoera hartzen du kontuan.

**Gramatika eta hiztegia sarean.** Euskara Institutuak erabilpenerako gramatika eta hiztegia sarean jartzeko proiektua aurkeztu du. Proiektuaren kudeatzaileek adierazi dutenez, ekimena originala da, Interneten ez baitago holako egitasmorik beste hizkuntzetan. Gramatika horrek hizkuntzaren entziklopedia izan nahi du, Eguno Euskal Hiztegiarekin.

**Kale erabileraren neurtetaren balioa.** Euskal Herrian bosgarren aldiz egin den kale erabileraren neurtetaren mundu mailan hizkuntzaren erabilera behaketa bidez azterten duen soziolinguistika ikerketa bakarra da, nahiz eta sarritan behar bezala ez baloratu. Hori dio Bat Aldizkaria argitaratzen duen Soziolinguistika Klusterrak azken alean.

## Argazkilaritza Industrialaren II. edizioa

Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkarteak II. Industriagintzari buruzko Argazki Lehiaketa antolatu du. Parte hartu nahi duenak 3 argazki aurkeztu ahal izango dituzte gehienez martxoaren 14a baino lehen honako helbidean: Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkarte Armeria Eskola, Isasi Kalea 36, 20600 Eibar, Gipuzkoa.

Argazki guztiak euskarri digitaletan aurkeztu beharko dira, zuri beltzean zein koloretan eta jorritako den gaia industriagintza izango da. Argazki onenak 900 euroko saria jasoko du, bigarrenak 400 euro, hirugarrenak 300 euro eta Armeria Eskolako Ikasle Ohien artean aurkeztutako argazki onenari 200 euro emango zaizkio.



Sariak, bestalde, apirilaren 5ean emango dira Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkartearen lokalean. Informazio gehiago lortu nahi ezkeror 943203146 telefonora deitu edo aaa@armeria-eskola.com helbidera mezua bidali.

## Laburrak

### SAN JUAN BOSCO

Zinema operatzaile eta beharginen patrioiaren omenezko bazkaria otsailaren 2an (zapatuan) egingo da, 13.00etatik aurrera Urko jatetxean (bazkaldu aurretik urteroko batzara egingo dute. Zinemetan beharria egiten duten guztiak gonbidatuta daude, baina joan nahi duenak eguna baino lehen izena eman beharko du 652775762 telefono zenbakira deituta edo Amaña Kultur Elkarte kideren bati esanda.

### ESPERIMENTU TAILERRA

Udalak, zapatuetako tailerren barruan, beste berri bat antolatu du: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleentzat prestatutako tailerren zientzia-esperimentuak egiteko aukera izango da otsailaren 9tik martxoaren 15era bitartean. Izena emateko epea zabalik dago eta matrikulak 5 euro balio du.

### HARIXA EMOTEN

Urtarrilaren 29an, martitzenean, ...eta kitto! Euskara Elkartearen Harixa Emoten literaturaren inguruko beste saio bat egingo da, 19.00etatik aurrera. Oraingo honetan Juan Martin Elexpuru idazleak 'Hamaika ipuin' lanaren gainean egingo du berba. Eleberria irakurri dutenek egilearekin inpresioak trukatzeko aukera izango dute.

## Oskorri Cielitorekin Coliseoan

Oskorri 35. urtemuga ospatzeko disko berria ateratu du bere erreperorio historikoan oinarrituta. Diskoa Bilboko Udal Bandarekin, 'Banda Band'-ekin, grabatu dute eta Eibarren lan hau aurkezteko, Cielito Musika Bandarekin zuzenean kontzertua eskainiko du taldeak otsailaren 3an, arratsaldeko 18.00etan, Coliseoan.

Sarreraren prezioa 10 eurokoa izango da eta horiek lortzeko hainbat aukera dago. Urtarrilaren 22an hasi ziren sa-

rerak saltzen, horretarako, Coliseoko leihatiletan martitzenean 20.00etatik aurrera eta emanaldi egunetan ordu bate lehenago daude salgai. Bestela Servikutxa/Telekutzaren bidez (943001200) edo interneten www.kutxa.net helbidean eskuratu daitezke.



## Goi mailako antzerkia

Aste baten buruan goi mailako antzezpen bi izango ditu Coliseoak: joan den zapatuan Markeliñe taldekoak izan baziren protagonista, gaur Txalo Teatroa taldeak 'Una visita inesperada' antzezlan eskainiko du 20.30etatik aurrera. 'Una obra inesperada' Agatha Christie-ren lan batean oinarritutako antzezlan da. Horrela, autore honen lan gehientsuetan bezala, hilketa bat izango da antzezpenaren oinarria. Jaime



Blanch aktore ezaguna da antzerki honen protagonista nagusia eta zuzendaria, berriz, Gerardo Malla. Sarreraren prezioa 18 eurokoa da eta, sarreraren salmentaren eritmoari begiratuta, Coliseoa bete egingo da.

## Urte osorako plana Kultu-ren eskutik

**A**rrate Kultur Elkarteak urte osorako programazioaren aurkezpena egin zuen eguaztenean. Elkarteko Eneko Astigarragak eta Aniaiz Ariznabarretak azaldu zituzten, "2008rako helburuak zehaztu ditugu: maila orokorrean kultura eta bereziki euskal kultura hedatzen laguntzea, herri-tarren garapen osoari laguntzea eta giza baloreak praktikan jartzeko bideak eskaintzea". Horretarako, besteak beste, produkzio kultural propioa eragin nahi dute, herriko eta eskualdeko beste kultur elkarteekin harremanak estutuaz. Ildo berean, lokalaren erabilpena bultzatu nahi dute, "beste kultur taldeei, kirol taldeei, giza mugimenduei, alderdi politikoei eta abarrei lokala eskainiz, euren jarduerak osatu ditzaten".

Partehartzea bultzatzeko ahalegin horretan eta elkartearen lema den "Hau da kultura, eguneroko ohitura bihurtu gura" esaldia-

ri jarraituta, erronka batzuei aurre egiteko prest daude: elkartearen denek zabalik egonda ere, gazteak erakarri nahi dituzte. Elkartea indartzeko, berriz, bazkide berriak lortzeko kanpainari ekingo diote laister (gaur egun 300 bat bazkide daude). Eta antolatutako ekitaldiei begira eta partehartzea indartzeko ahaleginari jarraituta, ikusle papera gainditu eta jendeari parte hartzeko aukera emango dioten tailerrak, ikastaroak, eztabaidak, lehiaketak eta horrelakoak eskainiko dituzte. Horren adibide dira Aratostearen inguruan prestatutakoak: bihar bertan, 17.00etatik aurrera Alain Domínguez aktoreak kokojantzietarako makilajeak nola landu azalduko du tailer praktikoko batean. Tailer irekia eta doanekoa izango da eta begietarako arkatz beltza baino ez da eraman behar. Bestalde, Eguen Zuri argazki lehiaketa martxan dago jada.



SILBIA HERNANDEZ

Elkartera jende gaztea gerturatu dela-eta, programazio dinamikoagoa egin nahi dute.

## Koko-eskea eta karpa Aratosteetako berritasunak

**E**guaztenean aurkeztu zen aurtengo Aratosteetako programa. Aipagarriena Untzagan karpa ipiniko dela da. Karparen barruan Lambrettak barra bat ipiniko du eta hainbat ekintza antolatuko dira bertan. Barixakuan, adibidez, herri afaria egongo da, DJ Arnok saioa eskainiko du eta eurria eginez gero ekintzak karpan egingo lirarteke.

'Eguen Zuri' egunean umeek hartuko dute protagonismoa. Izan ere, urtero bezala, ikaste-

txe ezberdinetako haurrek kalejira eskainiko dute. Honen ostean, Urkizun hasita Untzagaraino, erraldoi eta buruhandien kalejira egongo da, eta ordu berean, Liskerrek dantzaldia eskainiko du Untzagan. Astixak, bestalde, 17.00etatik 19.00etara makilajek, kareta, antifaz eta tatuaje tailerrak eskainiko ditu Untzagan, baita ere.

Udalak, bestalde, Aratosteetan dotoreen jantzen den tabernari saria emango dio. Horretarako, izena emateko epea urta-



EKHI BELAR

Biharko koko-eskearekin hasiko dira Aratosteak, baina ekitaldi gehienak hurrengo asteburuan pila-tuko dira.

rrilaren 31ean bukatzen da 14.00etan eta Pegoran edo 010 telefonoan eman beharko litza-

teke. Tabernak, bestetik, otsailaren 1ean arratsaldeko 18.00etarako egon beharko dira prest.

## Koko jantzi lehiaketa Galiziako Etxean



**U**rteroko moduan, Aratosteetarako lehiaketa prestatu du As Burgas Galiziako Etxeak: otsailaren 2an, 18.00etan umeendako koko-jantzi lehiaketa hasiko da Urkizuko egoitzan. Parte hartzeko ez dago alde aurretik izena emateko beharrik, nahikoa da aipatutako toki eta orduan han agertzea. Parte hartzen duten ume guztiei opariak emango dizkiete eta, horrez gain, hiru koko-jantzi onentzat sari bereziak egongo dira.

## Deporreko argazkilariak Topalekuan

**K**lub Deportiboko Argazki Taldeko kideek gaur arratsaldean erakusketa inauguratuko dute Topalekuan 19.30-etan (inaugurazioa eta gero piskolabisa egongo da). Otsailaren 3ra arte Arrate Kultur Elkartearen erakusketa aretoan zabalik egongo den erakusketa ohiko ordutegian bisitatzeko aukera egongo da: zapatu, domeka eta jai

egunetan, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara eta aste-gunetan, berriz, arratsaldeko 19.00etatik 21.00etara.





## Asier Garinen 'Egipto' Deporren

**Asier Garin argazkilaria Egipton ateratako argazkietako batzuk Klub Deportivo bako tabernan ikusgai daude egunotan.** Erakusketa urtarrilaren 31ra arte ikusi daiteke egunero, taberna zabalik dagoen edozein momentutan.



## Antzerki jardunaldiak gerturatzen

**Martitzenean, urtarrilaren 29an, Elbarko XXXI. Antzerki Jardunaldien aurkezpena egingo dute Portalean, 12.30etan.** Orduan emango dute ezagutzera aurtengo edizioako programazio osoa eta jardunaldien inguruko beste zenbait argibide.



## San Blas opilen lehiaketa

**Elbarko Bakilluaren Kofradixiak San Blas opilen lehiaketa antolatu du lehenengoz, Udalarekin eta herriko dendariekin elkarlanean.** San Blas egunean bertan izango da lehiaketa eta parte hartzeko ez da alde zuretik izenik eman behar, nahikoa izango da otsailaren 3an Untzagan 11.45etan agertzearekin, San Blas opila eramanda, jakina. Opilak etxean egindakoak izan behar dira eta onenei saria emango diete (garaikurra eta 100 euro lehenengo postua eskuratzen duenari, garaikurra eta 50 euro bigarrenari eta 30 euro hirugarrenari). Gainontzeko partehartzailentzat hainbat opari banatzeko asmoa dute, dendariek ematen dutenaren arabera.

*Las Arenasen bizi da Satur Peña eibartarra. Arte Ederretan lizentziatua, San Andres elizari buruzko liburu baten gainean egin du lan azken hiru urteotan. Eibartarrak obra honen garrantziaz jabetzea da bere nahia. Liburua gaur aurkeztuko da 20.00etan San Andres parrokian.*



## SATUR PEÑA, "SAN ANDRES DE EIBAR"-EN AUTOREA: "Erretaularen balio historiko handia goraiatu nahi da"

**- Zer jorratzen duzu liburuan?**

Lehenik eta behin erretaulari buruz liburu egitea zen guk nahi genuena. Baina, azkenean, eliza osoaren eraikitzearen historia jorratu da, bere zabalteza, barrualdea eta, nagusiki, erretaula nagusia. Bestalde, sabaian sartuta dauden giltzarriak ere landu dira, altuera eta argi eskasarengatik gutxiago ezagutzen direnak. Esan dezaket, argazki ederrak aurkitzen direla eta giltzarri horiek izan direla aurkikuntzarik harrigarriena, gutxienez ezagutzen zirenak zirelako. Lana egiten eta ikertzen nihoan bitartean gauza berriak aurkitzen nituen.

**- Fernando Beorlegiren sarrera izango du liburuak eta bera izan zen lan honen bultzatzailea. Bere omenerako ballo izango du liburuak?**

Fernando Beorlegiren nahia hor dagoen baina jendeak asko ezagutzen ez duen gauza bati buruz liburu bat argitaratzea zen. Erretaulak duen balore historikoa goraiatu nahi zuen eta hori proposatu zion Udalari. Eta bai, omenaldi bezala balio du liburuak. Egund gutxi gaitik ezin izan du kalean ikusi lan hau eta pena da, baina horrelakoa da bizitza.

**- Nolako lana izan da?**

Ikerketa egiten hiru bat urte eman ditut. Ondo aurkitu behar da zer dokumentazio dagoen. Gainera, Eibarren arazo

handi bat dago, izan ere, artxiboak erre egin ziren eta dokumentazio ugari falta da. Horrela, askotan pista baten atzetik joaten zara, baina ezin duzu aurrerago egin, ez baitago artxibo gehiago. Hala ere, leku batetik ez bada beste batetik aurkitzen duzu nahi duzuna eta nahi duzun istorioa bukatzeko adina gauza lorzen dituzu.

**- Liburu irakurrita, berdin begiratuko dute erretaula eltzara doazenek?**

Ez, ez dut uste. Batzuetan, gauzak aurrean ditugu eta begiratzeko konturatu zaitezke artelan polita dela eta abar. Baina bere historia ezagutzen ez baduzu, oso zaila da inork hori ulertzea ikusten duena baino haratago. Artelan hori buruz gauzak kontatzen badizkizute, "santu hori hor dago", "hau horregaitik da", "data honetan egin zen", beste era batera ikusiko litzateke artelan hori.

**- Liburu egin aurretik zenuen helburua beteko dela uste duzu?**

Nik uste dut baietz. Egia da gauza batzuetan urrutirago heltzea gustatuko litzaidakeela, baina espero dut eibartarrak lan hau oso ondo hartzea dagoen bezala. Nik erretaula bikain hori gehiago ezagutuaraztea nahi nuen, bere garrantzia jendeari jakinarazi, eta espero dut irakurleak arreta guzti hori jasotzea.



**telefono jakingarriak**

SOS deiak.....	112
Pegora .....	010
Udaletxea .....	943 70 84 00
Portalea .....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea....	943 70 07 99
Debegesa .....	943 82 01 10
KIUB .....	943 20 38 43
Epaitegia .....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdia...	943 46 46 22
Gurutze Gorria....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekua .....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza .....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa .....	902 10 12 10
Taxiak .....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkoholiko Anonimoak .....	629 14 18 74

**autobus ordutegiak**

**EIBAR-DONOSTIA.** Egutegia: 07.00, 08.50, 10.30, 13.30 eta 18.30. Laneguna: 08.00, 15.30, eta 20.30. Jaieguna: 09.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutegia: 12.30, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30 eta 13.30. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara orduro. Zapatua eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara orduro. Zapatua eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara orduro. **EIBAR-GASTEIZ.** Egutegia: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapatua: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Egutegia: 08.30, 12.30, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.30 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaieguna: 07.30 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapatua: 14.15. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatua: 14.45. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.30 eta 19.30. **ERMUA-MENDARO.** Astelehenerik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdiro). Zapatua-Domeka-Jaieguna: 06.50-etik 21.50-era orduro. **MENDARO-ERMUA.** Laneguna: 06.55etatik 21.55etara orduerdiro. Zapatua-Domeka-Jaieguna: 07.55-etik 21.55-era orduro.

**tren ordutegiak**

**EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.13etatik 21.13etara orduro. + 10.35 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 05.57etatik 20.57etara orduro. + 09.34 eta 20.18. **EIBAR-DURANGO.** Egutegia: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Laneguna: 06.13etatik 20.13etara orduro. + 10.35 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Laneguna: 05.47etatik 20.47etara orduro.

**eguraldia**

*Euskal Meteorologia Agentziatik*

**EGUZKIA NAGUSI**

Zapatu goizaldea hotza izango da, baina gero giro ederraz gozatzeko aukera izango dugu. **Behelainoa** sortuko da zenbait tokitan eta **izotza** botako du barnealdean. 13-15 °C inguruan kokatuko dira tenperatura beroenak. **Domeka** rako laino gutxiago espero da eta tenperatura berdintsua izango da.

**25  
barixakua**

**SANBLAS SALMENTA**

**16.30.-** Ikas-bidairako dirua lortzeko Isasiko sanblas-opilen salmenta, Aldatze ikastetxearen eskutik. Untzagan.

**LIBURU AURKEZPENA**

**20.00.-** 'San Andres de Eibar' liburuaren aurkezpena. Egilea: Satur Peña. San Andres elizan.

**ANTZERKIA**

**20.30.-** 'Una visita inesperada', Txalo Teatroa taldearekin. Sarrera: 18 euro. Coliseoan.

**26  
zapatua**

**KOKO-DANTZAK**

**08.30.-** Aratosteetako koka-dantzak, Kezka dantza taldearen eskutik. Merkatu plazan hasi (Rialton) eta goiz eta arratsaldez baserri-ekin baserrira joango dira. 19.00etatik aurrera herriko erdiguneko kaleetan (ibilbide zehatza 11. orrialdean).

**SANBLAS SALMENTA**

**10.30.-** Ikas-bidairako dirua lortzeko Isasiko sanblas-opilen salmenta, Aldatze ikastetxearen eskutik. Untzagan.

**ESKOLAK EUSKALDUNDU**

**13.00.-** 'Eskolak Euskaldu behar du' herri-ekimenaren agerraldi publikoa. Untzagan.

**MAKROBIOTIKA**

**14.30.-** Bazkari makrobiotikoa (izena emateko Badana dendara edo Montekasino tabernara joan). Ondoren hitzaldia: 'Energia eta permakultura'. Hizlaria: Markos. Tallarra gaztetxean.

**MAHAI-JOKOAK**

**16.30.-** Domino txapelketak. Kantabriako Etxean.

**26  
zapatua**

**MAKILAJE TAILERRA**

**17.00.-** Aratosteetako makilajeetan trebatzeko tailer praktikoa, Alain Dominguez aktorearen eskutik. Doan (begietarako arkatze beltza eraman behar da). Arrate Kultur Elkartearen (taberna gaineko lokalean).

**LAGUN TALDEA**

**17.30.-** 'Hotel Lagun Taldea 10 estrellak' ikuskizuna, Lagun Taldearekin. Sarrera doan, gonbidapenarekin. Hezkuntza Esparruan.

**ALANON**

**18.00.-** Al-Anon Alkoholiko senitartekoen elkartearen 30. urteurrena. Hitzaldi informatiboa. San Andres elizako lokaletan (anbulategi paretik sartuta).

**27  
domeka**

**UMEENDAKO ZINEA**

**17.00.-** 'Mr. Magorium y su tienda mágica' (Zuz: Zach Helm). Sarrera: 2'80 euro. Amaña Kultur Aretoan.

**FADO EMANALDIA**

**19.00.-** 'Ventos de Saudade' taldearen emanaldia. Sarrera: 18 euro. Coliseo antzokian.

**28  
astetehena**

**TOPAKETA**

**09.45.-** Barne merkataritzaren inguruko jardunaldia, Eibar Merkataritza Gune Irekiak antolatuta. Portalean.

**29  
martitzena**

**TOPAKETA**

**11.00/13.00.-** "Psikologia positiboa II", Adinduren eskutik. Hezkuntza Esparruan.

**29  
martitzena**

**GURASOAK MARTXAN**

**19.00.-** 'Cómo prevenir el fracaso escolar'. San Andres ikastetxean.

**HARIXA EMOTEN**

**19.00.-** Juan Martin Elexpuren 'Hamaika ipuin' liburuaren inguruko tertulia egilearekin. Sarrera librea. ...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11 solairuartera).

**EIBAR ZINE-KLUBA**

**21.00.-** 'Laura' (Zuz: Otto Preminger). Sarrera: 3'50 euro. Coliseoan.

**30  
eguztina**

**BAKEAREN ASTEA**

**11.30.-** Bakearen Astea La Sallen. Jaialdia. La Salle Azitainen.

**AURKEZPENA**

**12.30.-** Eibarko Antzerki Jardunaldien XXXI. Edizioaren aurkezpen ekitaldia. Portalean.

**BIDEO-FORUMA**

**19.00.-** 'Literatura zine- man' zikloaren barruan, literatura bideo-foruma Maria Jesus Agirrearekin: 'Balzac y la joven costurera china' (Zuz: Dai Sijie). Sarrera librea. Portalean.

**GURASOAK MARTXAN**

**19.00.-** 'Refuerzos y castigos'. Amaña ikastetxean.

**31  
eguztina**

**IKASTEN**

**10.30/12.30.-** 'Viaje al interior de España en Vespa', Ander Izagirrearen eskutik. Hezkuntza Esparruan.

**EGO-IBAR ZINE-KLUBA**

**17.30 eta 21.00.-** 'Crazy' (Zuz: Jean-Marc Vallée). Sarrera: euro 2. Hezkuntza Esparruan.



## erakusketak

### Urtarrilaren 31ra arte

Asier Garinen 'Egipto' argazki erakusketa.  
**Klub Deportiboan.**

Jose Luis Martinezen argazki erakusketa.  
**El Ambigú tabernan.**

Gotzone Merinoren argazki erakusketa.  
**Portaleko tabernan.**

### Otsailaren 3ra arte


Fernando de Vicenteren 'Bartleby' erakusketa.  
**Portalean.**

Aratosteak 2008 kartelen erakusketa.  
**Portalean.**


Deporreko Argazki Taldeko kideen argazki erakusketa.  
**Topalekuan.**



## denborapasak



**Topatu Gipuzkoako 14 hondartza.**



**Aurrekoaren SOLUZIOA**

## farmaziak

### 25. barixakua

GOIZEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

### 26. zapatua

GOIZEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)  
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

### 27. domeka

GOIZEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)  
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

### 28. astelehena

GOIZEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

### 29. martitzena

GOIZEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

### 30. eguaztena

GOIZEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

### 31. eguena

GOIZEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

### 1. barixakua

GOIZEZ **Las Heras** (Sostoaarren, 20)  
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

## hildakoak

- Rosario Ferreira Larreategi. 94 urte. 2008-1-16.
- Perpetuo García Ruiz. 90 urte. 2008-1-17.
- Casimiro Balmaseda Pascual. 83 urte. 2008-1-17.
- Margarita Ansola Bengoetxea. 2008-1-18.
- Hipolito Giraldo Antolin. 90 urte. 2008-1-19.
- Cristina Arrieta Ibarluzea. 93 urte. 2008-1-21.
- Faustino Zendoia Barrutia. 89 urte. 2008-1-22.
- Juan Agirreazaldegia Agirreurreta. 86 urte. 2008-1-23.
- Idoia Astiz Astigarraga. 52 urte. 2008-1-23.

## jaiotakoak

- Samuel Gomes Becerra. 2008-1-10.
- Josune Peña Osorio. 2008-1-10.
- Iker Olasolo Bengoetxea. 2008-1-15.
- Jana Ortiz de Zarate Torre. 2008-1-16.
- Uxue Zabala Bóveda. 2008-1-17.

## zinemazinemazinema



**untzaga**  
"Deseo, Peligro"


ZUZENDARIA:

**Ang Lee**

AKTOREAK:

**Tony Leung, Tang Wei, Joan Chen, Wang Leehom.**

Bigarren Mundu Gerra; Shangai. Wong Chia Chi unbertsitate ikaslea da. Antzerki tailerlean Kung Yu Min ezagutuko du eta proposamen berezia egingo dio: Mak anderearen pertsonaia sortu eta japoniarrek hiltzeko lana egin...



**amaña**

"Mr. Magorium y su tienda mágica"

ZUZENDARIA:

**Zach Helm**

AKTOREAK:

**Dustin Hoffman, Natali Portman, Jason Bateman, Zach Mills...**

Nekatuta dagoela eta, Mr. Magorium-ek bere denda magikoa salgai jartzea erabaki du. Urtetan bere laguntzaile izan den Molly Mahoney-ri saltzeko asmoa du, baina arazo bat dago: denda ez da ados...



**ego-ibar**

"C.R.A.Z.Y."

ZUZENDARIA:

**Jean-Marc Vallée**

AKTOREAK:

**Michel Côté, Marc-André Grondin, Danielle Proulx, Emile Callée..**

Zachary Beaulieu 1960an jaio zen. Hiri inguruan bizi da lau anai, ama eta aitarekin batera. Zac-ek bere bizitza kontatuko digu, 1960, eta 1980 artean, haurtzarora, gaztarora eta nerabezarora: musika, drogak, neskak...

## lehiaketak

### XI. Eguen Zuri Argazki Lehiaketa

Gaia: Aratosteak.

Epea: **Martxoaren 4ra arte.**

Informazioa: Arrate

Kultur Elkarte edo

www.eibar.org/blogak/kultu.

### Aratosteetan dotoreen jarritako taberna lehiaketa

Epea: **Urtarrilaren 31ra arte.**

Pegoran edo 010 telefonoan.

Informazioa: Portalean

edo Pegoran.

### II. Industriaduntzari buruzko argazki lehiaketa

Gaia: Industriaduntza.

Modalitatea:

Euskari digitalean.

Epea: **Martxoaren 14ra arte.**

Informazioa: Armeriako

Ikasle Ohien Elkarteak

(aaa@armeriaeskola.com).

## ETXEBIZITZAK

- Neska eskaintzen da etxea alokairuan konpartitzeko. Deitu arratsalde. Tel. 652-716135.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 628-789789 edo 650-344915.
- Amañan pisua salgai. Logela bi, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoi handi bi. Gasa eta igogailua. Bizitzera sartzeko moduan. Prezio interesgarria. Tel. 618-135429.
- Pisua salgai Barrera kalean. 3 logela, egongela-jangela, sukaldea eta komun bi. Aparta. Hego orientazioa eta dena kanpora. Igogailua. Tel. 645-722957.

## LOKALAK

- Matsarian garajea alokagai. Hileko 70 euro. Tel. 659-971677 edo 943-127410. Jose Ramon.
- Lokal komertziala salgai Urkizuko dorreetan. 50 m<sup>2</sup>. Pasabidearekin. Tel. 656-705279 edo 943-742930.
- 120 m<sup>2</sup>ko lokala alokagai. Elkarre batendako edo bilerak egiteko aproposa. 18 urtetik gorakoendako. Tel. 649-983581.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako **PREZIOAK** honakoak dira: **Etxeak, lokalak, garajek:** alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. **Autoak:** 10 euro. **Doaneko iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.**

## SALEROSKETAK

- Kotxe-kapota, silla txikia eta kapazoa salgai. Bebe-car markakoa. Tel. 943-200739 edo 605-774767.
- Korrika egiteko zinta salgai. Tel. 656-789221.
- Telebistarako kristalezko altzaria salgai. 3 apal eta moduloa. Berri-berria. Prezio onean. Tel. 665-701663.
- Okela moztekoa eta pisu elektronikoa salgai. Tel. 943-208125.
- Telebista salgai. 25 pulgada. Altzariarekin. Prezio onean. Tel. 943-120308.

## BESTELAKOAK

- Autoa konpartituko nuke Donostiara zateko. Tel. 656-720329.
- Mobila galdu nuen aurreko barixakuan anbulategiaren parean. Eskertuko nuke tarjeta bueltatzea. Tel. 943-121386.

*Iragarkiak ipintzeko:*  
**943-200918 (Marisol).**

## LANA

- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako. Tel. 663-569263.
- Neska eskaintzen da orduka edozein lanerako. Tel. 686-127137.
- Emakumea behar da oinetako denda batean astean hiruzpalau arratsaldean lan egiteko. Deitu denda orduetan. Tel. 943-201580.
- Andra eskaintzea da goizez edo orduka umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 688-618959.
- Andra euskalduna behar da bikote nagusia zaindu, konpainia egin eta etxeko lan batzuetarako. Interna. Tel. 666-035757.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan lan egiteko. Tel. 648-077830.
- Liburu-azoketan herriz-herri ibiltzeko langilea behar da. Ezinbestekoa euskalduna izatea eta gida-baimena eta autoa edukitzea. Tel. 943-590212.
- Mutila eskaintzen da gaez nagusiak zaintzeko. Tel. 648-143804.
- DBHko neska bati klaseak emateko neska behar da. Euskeraz ondo jakitea ezinbestekoa. Tel. 943-700705.
- Mutila eskaintzen da lantegirako, arozgintzan lan egiteko, igeltsero-laguntzaile moduan... Tel. 656-781743. Gary.
- Urki inguruko emakumea behar da umea zaintzeko. Deitu 19.00etatik aurrera. Tel. 943-700400.
- 19 urteko ikaslea eskaintzen da umei etxeko-lanak egiten laguntzeko. Tel. 645-704709.
- Neska eskaintzen da ileapaintzaile-laguntzaile moduan edo nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 669-064252.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldean nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako. Tel. 652-715908 edo 943-742201.
- Neska eskaintzen da goizez umeak zaintzeko. Tel. 659-222426. Janire.
- Mutila eskaintzen da tabernan lan egiteko: sukaldari moduan, barran... Tel. 666-054698.
- Neska eskaintzen da goizez umeak zaintzeko. Tel. 628-789789.
- Neska eskaintzen da arratsaldean umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 690-791689.
- Neska eskaintzen da arratsaldean nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako. Tel. 666-815008.
- Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 943-174134.
- Mutila eskaintzen da garbiketa lanak edo kamarero moduan lan egiteko. Tel. 680-250527.
- Neska eskaintzen da umeak zaindu, tabernan lan egin... Arratsaldean eta asteburuetan Tel. 680-250527.
- Soldatzailea eskaintzen da. Esperientzia erdi-automatikoa eta TIG-en. Tel. 616-207343.
- Zientzietako klaseak ematen ditut DBHn eta Batxilergoan. Tel. 627-852080.
- Kamarera/o behar da Kultu tabernan. Euskeraz jakitea baloratuko da. Tel. 685-738435.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 626-380238 edo 943-120058.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaindu eta kalera ateratzeko. 6 euro eguneko. Tel. 943-700650.
- Emakumea behar da umeak zaintzeko. Tel. 652-736078. Sandra.
- Klase partikularrak ematen dira. Tel. 678-351685.
- Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 685-715805. Isabel.
- Neska eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 697-869958.
- Neska eskaintzen da ostalaritzan edo garbiketa lanetarako. Tel. 636-001196.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu edo etxeko lanetarako. Tel. 662-423898.
- LHko eta DBHko 1. zikloko partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. Esperientzia. Tel. 676-181138.
- Neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. Tel. 670-095634.
- Neska eskaintzen da orduka etxeko lanak egiteko. Tel. 630-531469.
- Sendagilea behar da zentro psiko-tekniko baterako. Tel. 943-208600 edo 667-995929.
- Gizonezko euskalduna eskaintzen da nagusiak paseatzera ateratzeko. Tel. 652-766525.
- Kamarera/o behar da Maixa tabernan. Tel. 610-619421.
- Neska eskaintzen da umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 943-200980.
- Neska eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 679-578511.
- Neska eskaintzen da umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 663-409732.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 660-919423.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 646-811678.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Esperientzia. Tel. 618-935929.
- Neska eskaintzen da astelehenetan goizez garbiketa lanak egiteko. Baita zapatu eta domeketan tabernan. Tel. 663-409732.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Arratsaldean edo gaez. Tel. 699-576107.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 690-296857.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Interna edo externa. Tel. 616-230814.
- Kamarera/o behar da Sokoa tabernan asteburuetarako. Tel. 943-207100.
- Pertsona euskalduna behar da astean hiru egunez (16.30etatik 18.30etara) umeak zaintzeko. Tel. 646-668659.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 669-064252.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldean umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 636-841158 edo 943-700461.
- Emakumea eskaintzen da tabernetan sukaldari edo garbitzaile lanak egiteko. Tel. 676-853028.
- Kamarera eskaintzen da jantokian edo barran lan egiteko. Jornada osorako. esperientzia. Tel. 663-301585.
- Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Esperientzia. Tel. 663-301585.

## ...eta musu bat zuretako

Zure senide edo lagunena bat zorientzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 3 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 6 euro. Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, GAIZKA  
Zubizarreta, hillaren 29xan lau urte egingo ditzuzu-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, GORETTI, gure goiz txoritxua, hillaren 21ian zazpi urte egin zenituelako. Famelixaren partez.



Zorionak, aitxixa JOSE (18xan), MARIA (8xan) eta JORGE (25ian) eneruan urtiak bete ditzuzuelako. Famelixaren partez.



Zorionak JENARO Azkarraga eta JUANITA Aranzabali, gaur hillaren 25ian urrezko ezteiak ospatzen ditzuzuelako. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ION, eguaztenian urtiak bete zenituan-eta. Ondo-ondo ospatu, eh? Muxu eta besarkada haundi bat lagunena partez.

# EIBAR



Eibarko inguru onenean bizi nahi duzu?

Gela bateko apartamentuak 180.000 €-tik

Gela biko etxebizitzak 260.000 €-tik

Ordainketarako erosotasuna eta zure etxebizitza saltzeko konponbidearekin

INFORMAZIOA  
ETA SALMENTA

Egogain kalea  
(Autobus geltokiaren  
ondoan)

943 20 21 99

LANDU  
Promoziak

Klase teoriko  
zein praktikoak  
norberak nahi  
dituenean

Klase teorikoak  
ikusentzunezkoen  
abantailak  
erabilita

Merkantziak  
eta bidaiariak  
garraiatzeko  
nazioarteko  
agentzia ziuertagiriak  
lortzeko ikastaroak

GIDATZEKO  
KARNET  
GUZTIAK

SOLOZABAL  
autoeskolak

HELBIDE BERRIA  
Estaziño kalea, 8

Tel. 943 70 23 84

ETESA

Tfnoa. 943 12 19 73 - Faxa. 943 12 70 68  
Bidebarrieta, 66 - 428 Postakutxa - 20600 EIBAR  
e-mail: [etesa@euskalnet.net](mailto:etesa@euskalnet.net)



ALTZARIAK-AULKIAK

BULEGOAK BANATZEKO MAMPARAK



BULEGOETAKO INSTALAZIO OSOA